



ERKIDE - Irakaskuntza
Irakaskuntza Arloko Taldea
Agrupación Sectorial de Enseñanza

IKASKIDE TALDEAK- IKASKIDETZAK- HEZKUNTZARI EGITEN DION EKARPENA

2014ko otsaila

1. GIZARTE-TESTUINGURU GARAIKIDEARI GAIN-BEGIRADA

Egungo gizartearen ezaugarri nagusienetarikoak etengabeko aldaketa eta konplexutasuna dira; eta horren isla ditugu azken urteotan esparru gehientsuenetan izan ditugun aldaketa (eraldaketa sozial, ekonomiko, demografikoak...) nabarmen eta azkarrak. Guzti honen adierazle batzuk aipatzearen, Ongizate Estatuaren krisia, lan merkatuaren prekarizazioa, emakumearen lan munduratzea eta honek eragindako aldaketa sozialak (familia antolaketan, haur eta zaharren zaintzan...), marko juridiko berrien agerpena, eta bazterketa eta gizarte marjinazio modu berrien agerpena aipatu daitezke.

Globalizazioaren inguruko narrazio eta irakurketak askotarikoak dira, baina uka ezina da egungo testuinguru globala, eta beraz gizarte egituraketa Globalizazioak ezaugarritzen duela:

- Ekonomia ageri zaigu sistemaren erdigunean kokatua: egungo ekonomi ereduak da lan merkatuan arauak inposatzen dituena.
- Politikoki, Estatu-nazioen boterean deszentralizazioa ematen ari da, eta ondorioz, orain arte Estatuak jokatuak diren paperean ahultzea.
- Hainbat bazterketa prozesu sortzen ari dira, eta honek gizarte harreman eta dinamikan eraginak ditu; izan ere, baldintza ezberdinetan aurkitzen diren hainbat pertsona eta kolektibo gizartetik at gelditzen dira. Prozesu hauek komunitate izate eta sentitzeari eta herritartasunari begirako hainbat eskubide eta betebeharren bermea oztopatzen dute.
- Gizarte desartikulazioa eta haustura soziala handituz ari da, individualismoa gailenduz.

Globalizazioaren eragina hezkuntzan zein den ulertu ahal izateko, hainbat autore garaikidek (Roig, 2006; Guarro, 2005; y Gimeno, 2002) egindako lanak aintzat hartzeaz gain, Beck-en (1998) ekarpenetatik ere abiatuko gara; izan ere, "arriskuaren gizartean" bizi garela aipatzen du soziologoak eta ekonomiaren arrazoi eta logikaren menpe funtzionatzen jarraitu edo ongizatearen bidean proposamen berriak urratu nahi ditugun hausnartzera gonbidatzen gaitu. Eskolaren unibertsoa gailenditzen duen

hausnarketa kolektiboa litzateke hau, guztiontzako aldeko testuinguruak sortzeko gizarteko partaide, instituzio, agente eta eragileoi dagokigun hausnarketa hain zuzen ere. Jarraian, testuinguru globalean eta honek hezkuntzan izandako eraginaren eszenatoki orokorrean kokatu bide, modu laburrean eragin-gune nagusiak aipatuko ditugu:

- Hezkuntzaren gidaritzan krisia: Arriskuen gizarteak nolabait helduarora eta bizitza aktibora igartzeko erreferente izan direnen (familia, eskola, lana) gidaritzan krisian jarri ditu.
- Identitate, ziurgabetasun eta segurtasun eza: herritartasuna airean geratzen da, norbere testuinguruan errotzeko dauden zailtasun eta ziurgabetasunengatik.
- Zibilizazioen arteko talka: Merkatu bakarrak modu inplizituan berarekin dakar bateratze teknologikoak, komertzialak eta abar garatzera. Horrek berarekin dakar herrien eraikuntzaren eta bizikidetzaren oinarrian dauden sare eta egitura produktiboak, komertzialak eta kulturalak desagertzea.
- Deslokalizazio kulturala: Belaunaldien arteko harremana deuseztatu da. Horrek sozializazio agenteen (familia, eskola, lantegia, komunitatea, politika,...) baitan ere lotura afektibo, sozial eta kognitibo oro eten da. Eta horren aurrean belaunaldi berrientzako, diruak eta merkatuak, tradizioen, ideologiaren, baloreen lekua hartu dute.
- Kapital soziala: Deslokalizazioaren eta IKTen erabileraren poderioz lan merkatua kolokan jarri eta enplegu egonkorra desegin da eta lehiakortasuna areagotu da. Horren ondorioz, hezkuntza sistemari egozten zaion kualifikazio funtzioa zalantzan dago. Orain deslokalizazio ekonomikoarekin globalizazioaren ondorioak kudeatzea dagokie, hala nola, gizarte kohesioa, gizarte integrazioa eta politika inklusiboagoak eginez eta nolabait gizarte kapitala eratuz erresistentzia lokala egiteko eta ahaleginak koordinatzeko.
- Merkatuaren beharrei erantzun ematea lehenesten da, hezkuntza eskubideetan oinarritu eta ongizatera bideratutako hezkuntza politikak sustatu eta indartu ordez.

2.- GARAI BERRIAK, GIZARTE ERRONKA BERRIAK

Globalizazioak eragindako desabantaila egoerei, belaunaldi berriak beraien testuinguruan errotzeko zailtasunei eta helduarora igartzeko oztopoei erantzun



integrala eman behar zaie, eta honek garapen eredu berria eraikitzeko premiaren aurrean kokatzen gaitu.

41.orr: Arizmendiarrietak argi ikusi zuen gerora baieztatu dutena bai sistemen teoria berriek nola konplexutasunaren teoriak: gizarte-garapena fenomeno kolektiboa dela, ez fenomeno indibiduala. Prozesu errotua dela eta dago sinergia, kapital sozial, gobernagarritasun eta sareko antolakuntza handia duten gizarte eta lurraldeekin lotuta dagoela. Hitzok aintzat hartuz, beharrezkoa dakusagu garapenaren aldeko lanean, hazkuntza ekonomikoaren aurrean, pertsonak eta berauen beharrak nahiz komunitateko beharrak ardatz gisa hartzeak lehentasuna izan beharko lukeela adostea.

Herria subjektu hezitzaile moduan ulertzen dugu, eta hemen kokatzen dugu haurren eskubideen bermearekiko komunitateko eragileen erantzukidetasun eta partaidetza printzipioak.

Pertsonen eta gizartearen garapena prozesu kolektibo gisa ulertzen dugu, eta ez prozesu indibidual moduan. Pertsonen eskubideak bermatu, beharrei erantzun eta hauek komunitateko kide gisa garatzeaz gain, komunitateko beharrak ere ardatz gisa hartu beharko lirakeela pentsatzen dugu. Hezkuntza eskubideen betetzea eta pertsonen nahiz gizartearen garapena gure identitate ikurrekin lotutako lurralde eta markoan kokatzen ditugu.

Testuinguru honek, beraz, erantzukidetasun eta partaidetza printzipioetatik abiatuz, gizarte kohesioan, konpromisoan, elkarlanean, aukera berdintasun eta ekitatean oinarritutako erantzunak behar dituzten erronka berrien aurrean jartzen gaitu:

- Herritarrak eta herria protagonista eta subjektu gisa irudikatzea: komunitateak bere burua eraikitzeko duen gaitasuna aintzatetsiz, eta esanahi partekatuetan oinarritutako egitura komunitarioak eraikiz.
- Parte hartzea egikaritzea: norbanako eta kolektiboek erabakitze prozesuetan ahotsa izateko eskumena, gaitasuna eta aukerak sortzea.

“La participación ciudadana es un proceso abierto transformativo, en el que se lleva a cabo unapolítica específica orientada a capacitar y aumentar el poder de la ciudadanía, y a impulsar su papel en el fortalecimiento del desarrollo comunitario”. Esto implica incidir de manera directa en la vida de la comunidad y en los procesos que se generan en ella, en la toma de decisiones, en la implementación o aplicación de las políticas, proyectos y/o iniciativas. En este sentido la participación ciudadana debe ser entendida como un proceso amplio y abierto en la toma de las principales decisiones de interés común, que busca aportar en la creación de nuevas condiciones para la población o modificar las existentes para mejorarlas. Cabe destacar que desarrollar la comunidad también significa “desarrollar la participación” y la cultura de la participación” (Camps, 2000).

- Elkar-lan eta lankidetzan oinarrituta lan-moldeen beharra: bai inplikazioak eta baita parte hartzeak ere aurrez pertsonen eta taldeen arteko konexio beharra dute. Horretarako ezinbestekoa da interes edo behar komunak eta osagarriak aitortzea, erantzukizun sozialerako balio berberak partekatzen dituztenak.
- Norberaren kulturaren eta hizkuntzaren alde egitea (Oinarri kulturalak -mito eta kulturaren tradizioa, baserriko kultura, hizkuntza, mundu ikuskera eta ideologia-gordetzea, ondo kudeatu, oinarri hauen arabera egungo egiturak eraldatzea eta etorkizuna proiektatzeko erabiltzea.

Ondorioz, eta gizarte eta komunitate-ekimeneko hezkuntza erakunde edo kooperatiba gisa, hezkuntzak gizartearen eraldaketa kooperatibotzat (edo eraldaketa komunitariotzat) jotzen dugun horren oinarrian dauden balio eta printzipioak sustatu beharko lituzkeela uste dugu: hala nola, gizarte kohesioa, konpromisoa eta partaidetza, elkarlana, aukera berdintasuna eta ekitatea, eta norberaren kulturaren eta hizkuntzaren alde egitea.

3. IKASKIDETZAREN BALIOA EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAN

Gure herritik egindako, gure inguruneko errealitate sozial eta hezitzaile anitzei irekita egongo den, eskubideen berma ardatz, inklusio eta berrikuntza irizpideak garatzea ahalbideratuko duen eta inguruneaz nola kolektiboki adostutako euskal identitatearen



garapenez konprometituta egongo den curriculum ereduaren gainean eraiki nahi dugu euskal hezkuntza sistema.

Kalitatezko hezkuntzaren beharra azpimarratu nahi dugu, kalitatea bazterketa eza ziurtatzeko elementu gako gisa ulertuz. Hots, hezkuntza kalitatezkoa izango da, baldin eta pertsona guztiei bizitza sozialeko alderdi guztietan parte hartzea ahalbideratuko dioten konpetentzia praktiko eta gaitasunak bermatzen bazaizkie, ikaskuntzarako eta bizitza aktibora iragateko programetara sarbidean aukera berdinak edo ekitatiboak ziurtatuz. Ikasle bakoitzak bere gaitasun, potentzialtasun eta aukerak ahal bezainbeste garatzean datza, horretarako beharrezko zerbitzu, bide eta bitartekoak eskainiz: honek, ikastetxeetan hori ahalbideratzen duten testuinguruak sortzeaz lotura dauka. Ikasle guztien garapen, ikaskuntza eta partaidetzarako hezkuntza erantzunak erraztu eta ahalbideratzen dituzten espazio sozialak sortzea eskatzen du.

Testuinguru honetan pertsona orok garatu beharko genuke ezagutza modu eraginkorrean sortu eta erabiltzeko gaitasuna, etengabeko eraldakuntza oinarrien gainean; horretarako, beharrezkoa izango zaigu herritar aktibo gisa beharrezkoa den gure autonomia garatu nahi eta ahal izatea (EUR-OP, 1999 In Domingo, J., 2003). Eredu honen baitan aurre-hartze eta parte-hartzea ikaskuntzarako oinarrizko gako bihurtzen dira.

Aurre-hartze, eszenatoki anitzak aurreikusi eta egoera berriei aurre egiten ikastearekin lotzen da, horretarako ekintzarako bidean alternatiba eta ondorio ezberdinak baloratzeko gai izatea, eta erantzun ezberdinak aktibatuz. Parte-hartzeak berriz, elkarrekin, elkar-lanean, elkarriketan eta eztabaidan oinarrituz egitea esanahi du.

Ezaugarri hauek beraz, dezente aldentzen dira irakaskuntzan ardazturiko ikaskuntza prozesuetatik, non aurreikuspena egokitzapenez lotzen den eta parte-hartzea onarpenaz. Batetik bestera dagoen alde horrek hezkuntza berrikuntza oro gidatu beharko lituzke.

Ikasle guztien ikaskuntza berritzaileari erantzun ahal izateko, beharrezkoa litzateke bada, metodo didaktiko-pedagogiko egokiak erabiliz, eta ikasle taldearen aniztasunari erantzunez, ikaste-testuinguru egokien, hau da, ikasle guztien ezagutza garatzera bultzatuko duten egoera-arazoen diseinu eta prestakuntzara bideratutako irakaslearen figura. Finean, ikaskuntza indibiduala eta kolektiboa, eta beronen erabilera produktiboa

erraztuko duten testuinguru/egoera/eszenatokien eraikuntzaz lotuta legoke (Hopkins, 2000:144).

Hargreaves eta Shirley-k (2012) azpimarratzen dutenez, Kalitatezko Hezkuntza sistemek ikuspegi inklusiboa garatu dute hezkuntzaren zereginaz eta gizartean bete behar dituen funtzioez egindako hausnarketan. Ikuspegi horrek kohesioa ematen dio sistemari eta, beste alde batetik, gai da partaide guztien inplikazioa lortzeko.

Orain arte deskribatu dugun ikaskuntza prozesu hau **ikaskidetzan** oinarrituta ematen da, pertsonaren garapena (ezagutza, jarrerak, harremanak, lankidetzak ...) elkarrekintzaren bidez eraikiz. Beraz, eskola eta gela mailan komunitateetan antolatzen gara hazteko, eta hezteko. Vygotskyren pentsamendu jarraiki, bestearen beharra daukagu, bestearekin elkarrekintzan hazten gara, hezten gara eta eraikitzen dugu gure ikaste prozesua.

Halaber, ikasgelatik at egon badaude beste ikaste eremu batzuk ere, non ikaskuntza esperientzia esanguratsuak ematen diren jaiotzen garenetik hil arte, esaterako, kafean, herrian, aisialdirako espazioetan eta bar. Beraz, eremu guzti hauek ere aintzatetsiak izan beharko lirateke. Horrek, ondorioz, lurraldean, komunitatean pentsatzera garamatza. Eskolarekin harremanak garatuz, konprometitua, parte hartzailea eta erantzukizunak hartzen dituen komunitatea irudikatzen dugu. Komunitateko kideak gaitzen eta prestatzen dituen, gizarte berrikuntza egiten duenak erakunde eta eragileekin batera. Hau da, lurraldearen baitan hainbat osagai aintzat hartzen dituen: giza kapitala (ezagutzak, trebetasunak, gaitasunak); balioak partekatzen dituen eta elkarlan, elkartruke eta konfiantzan oinarritutako gizarte kapitala; eta gizarte egoerak aldatu eta hobetzera bideratutako gizarte berrikuntza. Beti ere, pertsonen, gizartearen, eta herriaren garapena eta ongizatea xedetzat izanda.

Ondorioz, zera esan dezakegu, Eskola eta beste ikaste eremuen arteko loturak estua, dinamiko edo bizia izan behar duela; eta baita estrategikoa ere. Baina, eremu eta erpinen arteko lotura edo elkar-lan hori lankidetzan oinarritutako lan-moldeetan egikaritzea beste biderik ez dago, komunitateko partaide guztiek, bizitzako aro eta garai guztietan kalitatezko heziketa, eta bizi kalitatean eta ongizatean hobekuntzak, garapen pertsonal, sozial eta komunitarioa, desberdintasun sozialen desagertzea eta justizia soziala bermatuak izateko.

4. IKASKIDETZATIK ERATOR DAITEZKEEN HEZKUNTZA XEDEAK

Kultura kooperatiboaren adierazlea diren gizartearekiko konpromisoa eta pertsonaren jarrera aktiboa hezkuntza xedeetan azpimarratu nahi ditugu ondoren azaltzen diren ekarpenetan.

Oinarrizko Hezkuntza xedeen aurkezpenean indartzen diren zenbait ideia ez dira azaltzen xedeak definitzerakoan. "Herritar aktibo gisa" irudikatzen den eta Hezkuntzaren bidez garatu nahi den pertsonaren ekarpena ez da sustatzen aipatutako norabidean. Horregatik zenbait ideia indartzea proposatzen dugu.

d.e puntuan IKASTEN IKASI konpetentziari lotzea proposatzen da, beti ere, elkarrekin ikasten duen pertsona eta taldearen ideia indartuz.

a.- Kulturaren oinarrizko elementuak eskuratzeko prozeduretan alfabetatzea. Euskaldunetik unibertsalera **bere identitatea eraiki ahal izateko...** eta jakintza hauek modu **kontziente eta integratuan** erabiltzea, bizitzaren maila guztietako egoerak **interpretatzeko , aurre egiteko eta bide berriak eraikitzeko.**

b.-Pertsonaren garapen integrala, maila guztietan: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, **kulturala**, morala, afektiboa, estetikoa eta espirituala.

c.- Ikaslea helduarorako prestatzea, gizabanako gisa bête-beteen bizitzeko gai izan dadin, **norberaren identitate pertsonala eta soziala eraikitzeko tresnak eskuratzea**, gizarte anitz eta global bateko kide aktibo gisa **gizarte horren natura, kultura, ekonomiaren... garapenarekin** konprometitutako pertsona gisa.

d.e biltzea proposatzen da.

Bizitza osoan zehar ikasten eta prestatzen jarraitzeko oinarriak eskuratzeko: jakintza, ekimen, elkarlan eta norberaren ezagutza eta autonomiarekin erlazioantutakoak.

5. IKASKIDETZA OINARRIZKO KONPETENTZIAK GARATZEKO TRESNA GISA.

Sarreran adierazitako hezkuntzaren ikuspegia eta gizarteak orohar aldarrikatzen dituen hezkuntza-beharrak: ez dira guztiz berriak. Aurreko mendearen hasieratik hona hainbat ahots entzun dira, batez ere hezkuntza eremuan diharduten erakunde, ikerlari eta pentsalari artean, heziketa ikuspegi, testuinguru eta prozesu berriak aldarrikatuz eta proposamen eta ekimen zehatzak aipatuz. Hezkuntza

paradigma berriak sortu badira ere, ez dute behar bezalako isla izan hezkuntza sistemetan, ezta horien bitartez eskoletan garatutako heziketa prozesuetan ere. Edonola ere, azkenaldi honetan zenbait mugimendu ematen ari da gizarte-esparru ezberdinetan (politikoan, ekonomikoan, hezkuntzan,..) hutsune horri eta sarreran adierazitako behar eta nahiei erantzuna eman nahian. Horietariko bat da konpetentzien nozioaren inguruan eraikitzen ari den diskurtsoa eta horren harira sorturiko curriculum proposamenak. Hain zuzen ere, testuinguru honetan kokatuz agerian utzi nahi da IKASKIDETZAREN balioa eta bere esanahia.

Konpetentziaren terminoak ibilbide eta tradizio luzeagoa badu ere, egun, dimentsio berri bat hartu du, bereziki ELGA erakundeak (Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak, erdaraz, OCDE) DeSeCo modura ezagutzen den dokumentua (erdaraz, Definición y Selección de Competencias fundamentales) argitaratu ondoren, 2003an. Dokumentua erreferentzi nagusitzat hartuz herrialde ezberdinetan (ELGAREN esparruan kokatutako gehienak) hasi dira eskolako curriculumak birformulatzen, konplexua den, baina era berean potentzialitate handiak dituen konpetentziaren kontzeptuaren bueltan.

Euskal Autonomi Erkidegoa ez da mugimendu honetatik kanpo geratu. Aipagarria da, batetik, hezkuntza eragile ezberdinek elkarlanean egindako ekimenetik sortu zen “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren” proposamena. Berau jasotzen duen dokumentuan, konpetentzi terminoari dagokionez, hezkuntza xedek eta hezkuntza konpetentzia orokorrak nozioak edo atalak bereizi eta elkarrekin osatzen dira: “hezkuntza xedek ezin dute, besterik gabe, eskolaldi osorako irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan jarraitu beharreko urrats zehatzak zehaztu, izaera globala eta orokorra dutelako. Beharrezkoa da helburu horiek ikasketa konpetentzia eta ikaskuntza espezifiko bihurtzea (...) Hezkuntzaren xedeen lorpena are gehiago bermatuko da (derrigorrezko eskolaldian) Hezkuntza konpetentzia orokor hauek zenbat eta gehiago garatuz:

- Pentsatzen eta ikasten ikasi.
- Komunikatzen ikasi.
- Elkarrekin bizitzen ikasi.
- Norbera izaten ikasi.
- Egiten eta ekiten ikasi.”



Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ere, aurreko ekimen hori laguntzeaz gain, bere bidea ere egin zuen Euskal Autonomi Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz ezarriz (175/2007 dekretua). Dekretuan, eta konpetentzi terminoari dagokionez, Oinarrizko Hezkuntzaren Xedeak jasotzen dituen atala bereizten da batetik, eta Hezkuntza-gaitasun orokorrak definitzen dira, bestetik. Azken hauek, “Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira”. Horiez gain, dekretuak bereizten ditu, batetik, Oinarrizko gaitasunak (“Testuinguru edo egoera askotarikoek eskatutako jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzean datza”) eta, bestetik, Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak, zehazten direnak “Hezkuntza-gaitasun orokorrak oinarri hartuta (..), betiere oinarrizko gaitasunei erreparatuta”. Dekretuak dioen bezala, “Oinarrizko Hezkuntzako prozesu osoa bideratzeko erreferentzi-ardatzak dira hezkuntza gaitasun orokorrak. Halaber, Europar Batasuneko erakundeen aburuz, *gaitasun giltzarriak* dira herritar guztiek lortu beharreko helburu komuna, eta, ondorioz, horiek landu behar dira hezkuntza-etapa komun eta derrigorrezkoan”.

Bistan da, konpetentzien terminoaren zehaztapenak interpretazio eta modu ezberdinak hartu dituela erreferenteak diren euskal hezkuntza sistemaren dokumentuetan. Komeni da, beraz, konpetentzien esanahian aurrerapausuak egitea eta proposamen berrietan horien ulermenerako eta aplikaziorako proposamenak egitea. Bide horretan kokatzen da dokumentu honetan garatzen ari den proposamena.

Oinarrizko konpetentziak ezaugarritzeko printzipioak

Aipatutako DeSeCo txostenean horrela definitzen da konpetentzi nozioa: “eskakizun konplexuei erantzuteko eta askotariko lanak behar bezala egiteko ahalmena”. *Konpetentzi giltzarri* terminoa erabiltzen du, konpetentzi bakoitza karakterizatuz eta hiru dimentsio edo kategoria ezberdinetan sailkatuz: tresnak modu interaktiboan erabili, talde heterogeneoetan elkarri eragin eta modu autonomoan aritu.

DeSeCo txostenak, eta horren gainean garatu diren lan kritikoek konpetentziaren esanahi partekatua eta, pixkanaka, esanahi adostuak izatera eraman gaituzte. Oro har, pertsonak garatu beharreko ahalmen modura ulertzen ari gara konpetentziak, jakintza eta trebetasunetatik haratago doan ahalmen integratu eta holistiko modura

ulertuz, testuinguru zehatzetan sortzen diren egoera konplexuei erantzuteko modu eraginkorrean erabilitako ahalmena modura, hain justu.

Dena dela, beharrezkoa ikusten dugu konpetentzien esanahian sakontzeko asmoz, horiek duten zentzua eta zeregina zein den eztabaidatu eta adostea. Zentzu horretan, oso baliagarria dela deritzogu konpetentziak dituzten ezaugarriak zeintzuk diren zehazten joatea. Gure ustez, oso modu egokian jasotzen ditu Pérez-ek, eta bat egiten dugu bere ikuspegiarekin, konpetentziak izan behar dituen ezaugarriak (Pérez Gómez, Cantabriako txostena, 15. orri):

-Izaera holistikoa eta integratua: ezagutzak, trebetasunak, balioak, jarrerak eta emozioak ezin dira modu bereiztuan ulertu.

-Izaera testuinguratua: konpetentziak zehaztu eta garatzen dira ekintza testuinguru ezberdinetara lotuta.

-Dimentsio etikoa: konpetentziak etengabe elikatzen doaz gizabanakoek bizitzan zehar eskuratzen dituzten jarrera, balio eta konpromisuekin.

-Transferentziaren izaera sortzailea: transferentzia ulertu behar da testuinguru bakoitzari egokitutako prozesu sortzaile bat bezala.

-Izaera hausnarkorra: konpetentziek hausnarketa prozesu jarraikorrek eskatzen dute testuinguru bakoitzak eskaintzen dituen aukerak intentzioekin armonizatzeke.

-Izaera ebolutiboa: konpetentziak bizitza osoan zehar garatu, hobetu, hedatu, edo okertu eta murriztu egiten dira.

Oinarrizko konpetentziak, konpetentzi giltzarri modura ulertuta.

Aurreko puntuan esandakoaren harira, Konpetentzia, gizabanakoaren ahalmen holistikoa, integratu, etikoa, ebolutiboa eta etengabeko hausnarketa parametroetan kokatuta ulertzen dugu. Eta zentzu horretan, oinarrizko konpetentziak **konpetentzi giltzarri** modura ulertzen ditugu, bai disziplina baitako/disziplinarteko edo oinarrizko konpetentzi espezifikoak zein hezkuntzaren xedeak garatzeko ezinbesteko konpetentzi modura. Alegia, oinarrizko konpetentziak beste era bateko gaitasunak lortzeko giltza edo bide modura. Bizitzaren arlo, eremu eta egoera guztietan beharrezkoak diren konpetentziak izanik, hezkuntza-testuinguru eta -prozesuetan erreferente eta helmuga izango diren konpetentzi modura, azken finean.

IKASKIDETZAREN ikuspegitik, ikastea gizabanakoaren garapenari estuki lotua eta, ezinbestean, giza interakzioaren bitartez gauzatzen den prozesu modura ulertzen da.

Vygotskyk ere, azpaldi ikertu eta ondorioztatu zuen ikaste prozesuak eta gizabanakoaren garapena bereizi ezinak zirela, eta elkar elikatzeko faktore

garrantzitsuena egiten jakite horretan kokatu zuen. Claxtonek ere gizabanakoaren garapenean jartzen du indarra ikastearen esanahia eta zeregina zein den adierazten duenean: “cómo las personas llegamos a hacer más, a saber más y a ser más de lo que éramos” (Claxton, 1987). Ikastea beraz gizabanakoaren garapenari estuki lotuta eta, ezinbestean, giza interakzioaren bitartez gauzatuko dena, horretarako ikaste bizona-esperientzi aberatsak izateko ikaste-testuinguru aproposak sortuz.

Aipatutako ideien ondorio gisa azpimarratu nahi dugu ultur trasmisioa ez dela soilik lotzen adierazpenezko edukiekin, ez eta HEZIBERRI txostenean planteatzen den edukien banaketa eginez. Kulturaren trasmisioa eta garapena testuinguruan izandako bizi eta harreman esperientzia eta bizipenekin lotu behar da ezinbestean eta ezin da mugatu adierazpenezko edukietara.

Ikuspegi horretatik uler daiteke ikaste prozesuak eta horietan lan daitezkeen konpetentziak, estuki lotuta doazela testuinguru egokienetan besteekin elkarlanean ematen den gizabanakoaren garapenari. Konpetentziaren ikuspegi horretan kokatzen da IKASKIDETZAREN filosofia eta egite moduak. Elkarrekin pentsatzeko, ikasteko eta bizitzeko hezkuntza-testuinguruak eta ikaste-irakaste prozesuak sustatuz ahalbidetzen dira pertsonak garatuko duen ahalmena

Ikasteko, beraz, bizitza-esperientzi aberatsak izateko ikaste-testuinguru aproposak sortzea beharrezkoa da. Ikuspegi horretatik uler daiteke ikaste prozesuak eta horietan lan daitezkeen konpetentziak, estuki lotuta doazela testuinguru egokienetan besteekin elkarlanean ematen den gizabanakoaren garapenari.

Zentzu horretan beharrezkoa da oinarrizko konpetentzien mapa osoa aintzat hartuz, horien artean ematen diren binkuluak aztertu, bakoitzaren garapen mailak zehaztea eta horiek landu eta ebaluatzeko behar bezalako estrategiak eta tresnak diseinatzea eta implementatzea. Jakintza arloen erreferente nagusia oinarrizko konpetentziak izan behar dira. Jakintza arloetan kontenplazten diren beste disziplina baitako konpetentzi espezifikoak, konpetentzi giltzarriei erantzuteko bide modura ulertu behar dira. Jakintza arloetan landuko diren ikaste-testuinguruak ahalbidetu behar dute oinarrizko konpetentzietan zehaztutako garapen maila ezberdinak landu eta ebaluatzen direla, beste konpetentzi espezifikoekin batera.



Oinarrizko konpetentzien lorpen mailak ebaluatzeko, halaber, disziplina ezberdinetako elkar-lana eskatzen du, bai planifikazioan zein horien inplementazioan ere, oso zaila baita, disziplina bakoitzean eginikoak oinarrizko konpetentziek eskatzen duten ahalmen holistiko eta integratuari behar bezala erantzutea.

Ikaskidetzan aritzeak beraz, aipatu konpetentzi giltzarri horien garapena sustatzeaz gain hezkuntza erakundeetan eraldaketa prozesuetarako beharrezkoak diren oinarriak ezartzen dituela ere esan daiteke. IKASKIDETZAREN ikuspegitik, elkarrekin ikastea eta elkarrekin bizitzea konpetentziak bere baitan har dezakete, eta aberastu ere, giltzarri modura izendatu diren besteak, hala nola, *komunikatzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea*:

- **Ikaskidetzaren bidez “ikasten ikastea” konpetentziaren garapena.**

Elkarrekin ikasteak, bereziki, bizikidetzari begira duen garrantzia azpimarratu nahi da. Izan ere, ikaste prozesuen inguruan garatzen dira eskolako esperientzia gehienak eta esperientzia hauek aukera ematen dute elkar ulertzeko, laguntzeko eta gatazkak ebazteko bideak esperimentatu eta modu sistematikoan lantzeko. Lankidetzak (Ikaskidetzaren ikaste testuinguruetan) ikaste prozesuan duen garrantzia azpimarratzen da hezkuntza arloko erakunde eta adituen iradokizunotan. Horrela jasotzen du, esate baterako, Delorsek “hezkuntzaren lau zutabeak” txostenean (UNESCO erakundearentzat egindako Delors txostena, 1996):

“Komenigarria izango litzateke hezkuntzari bi orientazio osagarri ematea. Lehenengo mailan, pixkanaka bestea ezagutzea. Bigarrengoan, eta bizitza osoan zehar, proiektu komunetan parte hartzea ... Hortaz, eskola hezkuntzak bere programetan gazteak oso txikitatik lankidetzaren proiektuetan ikasten hasteko nahikoa denbora eta aukera eskaini behar ditu” (Delors, 1999:100)

Izan ere, ikasten ikastearekin erlazioatutako alderdiak: ulermenean oinarritutako pentsamendua, pentsamendu sortzailea, pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea, arazoaren ebazpena, baliabide kognitiboaren erabilera,.. elkarrekin bidez hobeto sustatzen direla esan daiteke: *“competencia necesaria para organizar y regular el aprendizaje, en solitario y en grupos; para adquirir, procesar, evaluar y asimilar nuevas piezas del saber; y para aplicar estas competencias en una variedad de contextos, incluyendo la resolución de problemas y el aprendizaje en casa, en la formación/educación, en el trabajo y*

en la sociedad.” (Comisión Europea, 2002). *Komunikatzen ikasi* konpetentziaren garapena ere sustatzeko aukera ematen dute Ikaskidetzaren testuinguruek, elkarrekin ikasiz, entzuten, galdetzen, argudiatzen, eztabaidatzen ikasten baita. Bestalde, *ekintzailetasuna* konpetentziaren garapenarekiko baldintza egokiak ezartzen ditu ikaskidetzaren testuinguruek: informazioa hartzea eta gordetzea, ideia berriak eta konponbideak lantzea, ideiak gauzatzea, inpaktuaren ebaluazioa:

“La iniciativa emprendedora en este sentido tiene una parte activa y una pasiva: la tendencia a hacer cambios uno mismo, pero también la habilidad de dar la bienvenida y apoyar la innovación traída por factores externos aceptando el cambio, responsabilizándose de las acciones de cada uno, positivas o negativas, terminar lo que se haya comenzado, saber a dónde vamos, fijar objetivos e ir en su busca, y tener la motivación para lograr el éxito”. (Comisión Europea, 2002)

- **“Elkarrekin bizitzea” konpetentzia.** Ikaskidetzaren kultura eta balioek sustatzen dituzten konpetentzien garapenarekin duen konpromisoa islatzen da *elkarrekin bizitzen eta lan egiten* konpetentziaren bitartez. Besteak beste, pertsonarteko harremana, parte hartze demokratikoa, elkarlana eta talde lana, gizarte bizikidetzarako arauak, aniztasuna eta arazoaren ebazpena konpetentzien garapena du helburu: “Aprender a vivir juntos, comprender al otro y entender la interdependencia a través de la participación en proyectos comunes y del desarrollo de capacidades ligadas al análisis y resolución de conflictos sobre la base del entender al otro.” (Delors, 1999:

Aipatutako argudioen aritiko, oso zaila egiten zaigu Oinarrizko konpetentzien ikuspegia eta HEZIBERRI txostenean planteatzen diren eremuen banaketa lotzea. Eredu pertsonala, soziala, akademikoa eta laborala bereiztea, alegia.

Eskola testuinguruan eremu akademikoarekin erlazionatutako egoerak eremu pertsonala eta sozialarekin erlazionatuta daude. Eredu akademikoaren bidez ikasleak bere autonomia, autorregulazio... eta beste hainbat konpetentzia garatzen ditu. Konpetentzia hauek inguruko pertsonen eraginez garatzen ditu, taldean arituko da eta



eremu sozialean aipatzen diren egoeren aurrean aurkituko da etengabe. Beste kulturarekiko adeitasuna, norberaren kultura ezagutzeko jarrera eta aukerak ere testuinguru horretan garatuko ditu

Eremu akademikora mugatzen bagara hankamotz geratzen da ikasten eta pentsatzen kompetentziari lotutako ikuspegia eta eremu pertsonalera mugatzen bagara pertsonaren alderdi soziala zintzilik geratzen da.

ikaskidetzaren oinarrizko printzipioek eremuen lanketa beteratuen adibide

Helburu komuna: ikaskide guztiek helburu berbera izan behar dute Ikaskide Taldeetan. Hots, denon partaidetzaren bidez, azken ekoizpena lortzea da taldekide guztiek partitu beharko luketen helburua. Helburu komuna eraikitzeke bidean ondoko alderdiak landu eta garatuko ditu ikasleak:

Taldearen izaera/identitatea eraikitzea. Taldearen identitatea norbanakoen identitateak ezagutuz eraikitzen da. Nor naizenetik taldean izan gaitezkeenera hausnartzeko aukera ematen du.

Empatía, bestearen lekuan jartzea eta egoera bestaearen ikuspegitik aztertzea. Guzti honek hausnarketa dakar, izan ere, iritzi desberdinak ezagutzeko aukera ematen du eta norberarentzat egokiak diren azalpenekin guztiak ez datozela bat.

Emozioak manejatzen jakitea. Norbera ezagutzea eta norberaren eta besteen emozio egoerak ulertzea

Negoiazioa eta komunikazio irekia: elkarlanean aritzen garenean, elkarerraginean dauden elementuak eduki behar ditugu kontutan: norbanakoa-taldea; Ikaste-irakaste testuinguruan, ikaslea-taldea-irakaslea. Elementu hauen arteko negoziazioa eta komunikazioa ezinbestekoak dira, batetik, xedeak modu berean irudikatzeke; eta, bestetik, prozesuan sor daitezkeen gatazkak modu positiboan kudeatu ahal izateke.

Gatazken identifikazioa eta konponbideak eraikitzeke aukerak ematen ditu Ikaskidetzan aritzeak. Hemen ere DeseCo txostenak aipatzen dituen baldintzak betetzen dira Ikaskidetzaren egoeretan:



Gatazkaren osagaiak eta interesak identifikatzea.

Adostasun eta desadostasun eremuak identifikatzea.

Arazoa testuinguruan kokatzea

Beharrak eta xedeak indartzea eta bidean banakakoak zein taldeak galdu daitezkeenak erabakitzea.

Kooperazio trebetasunetan entrenamendua: Ikaskide Taldeak bide arrakastatsutik joateko, ezinbestekoa da kooperazio edo gizarte trebetasunetan entrenatzea. Taldean aritzeak ez dakar, automatikoki, elkarlanean aritzen ikastea. Talde lanean ari gaitzke eta benetako elkarlanarekin zerikusirik ez daukaten trebetasunak garatu: besteen lanaz aprobeztatu, lanetik inhibitu... Horregatik garrantzitsua da kooperazio egoeretan trebatzea eta esperientziak izatea.

Ikaskidetzan arrakastaz aritzeak **Aurrez aurreko komunikazioa** garatzea eskatzen du eta aldi berean aukerak ematen ditu aipatutako kompetentzia garatzeko. Ezagutza partekatzeak ondokoak eskatzen ditu: bere burua besteei adierazten, besteak entzuten, besteen egoeretara egokitzen, gatazken kudeaketa positiboan...

Elkarmenpekotasun positiboa: Johnson, Johnson eta Holubecek (1999) adierazten duten gisa kide bakoitzaren lorpena taldearen lorpenari lotuta dago, eta alderantziz ikasleak, bere helburuak lortu ahal izateko besteen beharra dauka. Behar honetaz zereginen egituraketaren bidez ohartuko da: bakoitzak zereginaren atal baten ardura izango du, baina elkarmenpekotasuna benetakoa izan dadin, eta ez bakarkako lanen batuketa soila, beharrezkoa izango da talde gisa haratago joatea, ikasle bakoitzak eta guztiek egin dituzten lanen arteko erlazioak identifikatzea, eta bakarkako lanen batuketa gaindituko duen zerbait berria ekoiztea.

Elkarmenpekotasun positiboa eraikitzeko erabiltzen diren eta ezinbestekoak diren estrategiak: rolen banaketa eta kudeaketa, zereginen banaketa eta kudeaketa, lanaren kudeaketa, denboraren kudeaketa norberaren ezagutza eta autonomia ahalbidetzen dute eta, aldi berean, prozesuaren autorregulazioa eta taldeko erregulazioa.

Elkarmenpekotasun positiboak **Autonomia eta autoerregulazioa** dakar: taldeak autonomia izango du, bai zereginaren norabidea hautatzerakoan, bai gatazkak bideratzean eta baita auto- eta ko-ebaluazio prozesuetan ere.



Elkarmenotasun positiboak informazioa partekatzea eskatzen ondorioz informazio konpetentziaren garapena laguntzen du. DeseCok aipatzen dituen konpetentziak, alegia.

Informazio konpetentzia beharrezkoa da egon daitezkeen aukerak identifikatu ahal izateko eta erabaki hausnartuak hartzeko ezinbesteko oinarria da. Ezagutza modu esanguratsuan erabiltzea ondokoak eskatzen ditu:

- Dakiguna eta ez dakiguna identifikatzea.
- Informazio iturri egokiak identifikatzea
- Informazioaren egokitasuna identifikatzea
- Ezagutza eta informazioa antolatzea.

Era berean, beste ardatz bat **bakarkako erantzukizuna** da. Helburu komuna lortzeko banakoak bere konpromiso eta ardurak hartu eta beteko ditu beti ere helburu komunaren lorpena begira. Jakinik bakoitzak egiten edo egiten ez duenak besteengan eragina duela. Ardatz hau bete ezean elkarmenpeotasun positiboaren ardatza betetzea ere oso zaila litzateke, ezinezkoa ez esatearren. Beraz, ardatz hau bermatze aldera Elkarrekin Ikasten Ikasi konpetentzia garatzen goaz. Ildo berean, aurrez aurreko komunikazioaren ardatza ere elkarrekin ikasi konpetentziarekin lotzen da, ezin baita elkarrekin ezer eraiki komunikazioa ez bada eta komunikazio eraikitzailea, sortzailea emango da elkarrekin ikaste prozesua egin nahi bada.

Ardatz honetan ondoko konpetentziak garatuko ditu ikasleak: konpromisoak betetzea bai zereginen dagokienez zein rolen dagokienez.

6. IKASKIDETZA IKUSPEGI METODOLOGIKOA

Aurreko atalean deskribaturiko moduan konpetentziek egungo eta etorkizuneko gizartean, jakintzaren ekonomiaren gizartean (Ducker, 1993), parte hartze autonomo, kritiko, sormenezko eta arduratsurako pertsona orok izan beharreko gaitasunei erantzun nahi diete. Era berean azken hamarkadetan neurozientzien eta pertsonen ikaskuntzarekin erlasionaturiko abangoardiako ikerketen ezagutzak ere bateratzen dituzte konpetentziek. Marko honetan ikasteaz ari garenean jakintzaren sormenaz ari gara (Sawyer, 2004a) ez erreproduktzio edo asimilazioaz. Honek ikasleek sakoneko ulermena garatzera garamatza (Sawyer, 2004a), jarrera aktiboz, autonomiaz, konpromisoz eta arduraz beraien ikaskuntza prozesua eraikitzen, eta soilik jarrera



guzti hauek aktibatzen diren testuinguruetan gertatzen edo garatzen da ikastea (Hernandez, 2010). Memoriaz haratago identitatean eta parte hartzean, naizenean eragiten duen ikaskuntzaz ari gara.

Jakintzaren sormenezko jabetzea, ikastea, soilik kideztan oinarrituriko testuinguruetan ematen da (Farrell, 2001; John-Steiner, 2000; Sawyer, 2003a), taldean eta talde harreman konkretuetan. Honek pertsonen ongizana bermatzearen garrantzira garamatza, oinarritzko beharrak ase-tuak daudenean soilik ikasten baita (Barandiaran...), aspektu biologikoez baina haratago doa ongizana partaide izatea, laguntasuna, ... ere ongintzaren aspektuak dira eta beraz ikaste testuinguruaren eraginkortasunaren gako.

Harreman egoera da gako, ikaslearen identitatea era eskean (Gutman.....) eraiki ahal izateko osasungarri den ikaste testuinguruaren ezaugarri zentrala, KIDETZA.

IKASKIDETZA beraz kideztan ikaste kultura garatzeari deritzogu. Norbanakoaren ulermen osotik eta bakoitzaren gaitasunetatik, elkarrekin, jakintzak sortzeko garatzen den ikaste eszenatokia.

Laburbilduz edozein pertsonak ikas dezan nahitaezkoa da testuinguru konplexuetan, elkarrekin, egiten eta ongizana bermatua izatea. IKASKIDETZAK ikasteko nahitaezkoak diren adierazle hauei erantzuten die.

Ikaste testuinguruetakako oinarria bertan parte hartzen duten kideen arteko harremana da, honek ongizana bermatzen ez badu ikastea ez delako emango. Kideztak soilik baimentzen du bertako kide guztien arteko prozesu osasungarria eta hauxe da gure ardatza.

Harreman egoera da beraz gako, IKASKIDETik irakasleen begiradan eragiten da ikaste testuinguru eraginkorren ardatza pertsonen eta beraien bizi proiektuekiko inplikazio eta konpromisoz eraikiz, hau da kideztan gaudenean soilik ematen da ikaskuntza autentikoa edo erreala.

Era berean ikastearekiko jarrera sortzailea sustatzen du eta ikasten ikaste kompetentzia garapenerako funtsezko eszenatoki bihurtzen da. Harreman egiturak era berean elkarrekin bitze eta elkarrekin ikaste esperientzia gauzatzera darama, hau da jakintzak sortzeko jardura eta testuinguruetara.

Honenbestez IKASKIDETZA hezkuntza ulertzeko hautu eta marko berritzailearen proposamena da, hezkuntza kooperatibotik eraikitako ibilbidetik hezkuntza ulertzeko eta gauzatzeko testuinguru berria.

6.1. IKUSPEGI SISTEMIKO ETA EKOLOGIKOA

Hezkuntzaren erdigunean ikaslea dago, berau da sistemari berari zentzua ematen dion gakoa eta azken xedea haurraren eta gaztearen garapena da beti ere garapen osasuntsua bermatuz. Honi eransten diogu Derrigorrezko Hezkuntza bukatzerakoan hiritar aktibo, autonomo, kritiko, ekintzaile eta komunitatearekin, herriarekin eta gizartearekin konprometituta dagoen herritarra bilatzen dugula.

Horrela ba, ezinbestekoa egiten zaigu, garapenaz ari garela, honen inguruko ikuspegi sistemikoa eta ekologikoa kontutan hartzea. Garapena ez baita modu isolatuan ematen, garapena ez baita “kausa-efektu” erlazio simple eta linealetan gauzatzen, garapena ez baita familian, alde batetik, eskolan bestetik eta kalean azkenik modu isolatuan ematen.

Ikuspegi sistemiko batetik garapen honetan pertsonak, haurrak, ikasleak bere testuinguruan eragingo du eta testuinguru desberdinek modu eta elkarrekintza anitz eta konplexuen bidez (eragin eremu zuzenagoetatik zeharkakoetara) eragin izango du bere garapenean elkarrekintza eta elkarreagin konplexu eta etengabe.

Ikuspegi ekologiko batetik elkarrekintza honetan eragin eremu desberdinak daude garapenean modu zuzenago eta urrunago batetik eragingo dutenak. Horrela bada, ikaslearen eragin eremu zuzeneko bat familia da baina baita ere gela (bertan zuzenean parte hartzen baitu). Bi sistema hauen arteko harremanek eta elkarrekintzek ere eragin izango dute bere garapenean, baita ikastetxean bertan ematen diren elkarrekintzek edota egiteko moduek, hartzen diren erabakiek...Eragin eremuan urrunduz, eskolak komunitatearekin daukan harremanek ere eragingo du...

Ikuspegi ekologiko batetik, kalitatezko hezkuntzaz ari garenean, komunitatearekin modu kohesionatuan jarduten duen eta autonomiaz eta identitate propioarekin ikasle guztien ikaste prozesua hobetzen duten jardueretan, eta ikasle guztien garapena



bultzatzen duen eskolaz ari gara. Profesionalen praktika gogoetatsuaren bidez ikasten duen erakundea, bere egitekoan etengabe hobetzen duena.

Prozesu honetan guztian irakaslearen gakoa izango da, gelan ikaslearekin zuzenean baitago, komunitatearekin (famiarekin, kasu) harreman zuzena duelako, lankideekin eta ikastetxearen antolamenduan parte hartzen duelako...

Beharrezko izango da, ondorioz, ikaslearen garapena eman eta sostenga dadin gelan egiten den lanketaz gain beste eremuetan modu koherentean lan egitea.

Marko ekologikoa eta sistemikoa azpimarratu, metodologia atalean ikaslearen garapen osasuntsua eman dadin eta landu beharreko kompetentziak lantzeko diseinatzen diren Ikaskidetzaren testuinguruen ezaugarrietan fokatuko gara. Beti ere, presente izanda gelaz kanpoko beste eremuetan egin beharreko lanketa beharrezkoak izango direla garapena hori eman eta sostenga dadin.

Aurreko atalean egindako ekarpenaren ildotik, kompetentzien araberako ikuspuntuaren printzipio metodologikoa aztertzerako orduan ezinbesteko egiten da marko ekologikoa eta sistemikoa kontuan hartzea.

Pérez Gómezek (2007) kompetentzien araberako ikuspuntuaren printzipio pedagogikoekin bat egiten dugu; beti ere, aurreko lerroetan aipatutako begirada izanik. Pérez Gómezek identifikatzen dituen printzipioen artean badago printzipio bat geure proposamenarekin modu zuenean bat egiten duena: “Berdinen arteko lankidetzaren lehen mailako estrategia didaktikoa da”. Gure proposamenan Ikaskidetzaz ari garenean elkarrekin eta modu kooperatiboan ematen den ikaskuntza prozesuaz ari gara. Ikaskidetzaren lehen mailako eta oinarri an dagoen estrategia izango delarik.

Gelan egingo denak zentzua hartzen du testuinguru jakin batetan. Ikaskidetzaren testuinguruak sortzeko gelan erabiliko ditugun estrategiak eraginkorrak izango dira baldin eta oinarrian dauden printzipioak eta ikaste eta lan egiteko ikuspegiak koherenteak baldin badira. Beharrezko izango da, ondorioz, ikaslearen garapena eman eta sostenga dadin gelan egiten den lanketaz gain beste eremuetan modu koherentean lan egitea. Kongruentzia testuinguruko beste eremuetan eman beharko litzateke; hala nola:

- ✓ ikastetxearen antolaketa (malgutasun maila, jerarkia maila, parte hartzea...),

- ✓ ikastetxean eraikitzen diren harremanak (elkarlana, errespetua, onarpena, entzute aktiboa, horizontaltasuna...),
- ✓ espazio fisikoaren antolaketa (“gela irekiak” elkarrekintza bideratzeko, kanpo espazioaren erabilera),
- ✓ ordutegia edo denboraren antolaketa,
- ✓ komunitatea eta elkarrekintza sortzaile eta eraikitzailea,
- ✓ hezkuntza eragileekin elkarlana eta sareen eraikuntza (etengabeko joan etorrian),
- ✓ beste hezkuntza komunitateekin sareak eta elkarrekintzak,

6.2. IKASKIDETZAREN PRINTZPIOEN ZEHAZTAPENA GELAN. IKASKIDETZARAKO ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK

Aurreko lerroetan azpimarratu da Ikaskidetzak ematen dituen aukerak oinarrizko konpetentziak lantzeko. Ikaskidetzaren printzipioak bermatuz gero ezinbestean konpetentzien lanketan ari baikara, besteak beste. Era berea, printzipio bakoitzak oinarrizko konpetentziekin daukan lotura zehazteko aukera izan dugu. Metodologia atal honek printzipio bakoitza zertan ezaugarritzen den eta gelaratzeko izan ditzakegun estrategia metodologikoak eskaintzea izango du xede.

Eduki mota desberdinen bereizketa ez dugu konpartitzen. Konpetentzia beraiek ikusten baititutgu (bai zehar konpetentziak zein espezifikoak) eduki bilakatu behar ditugula bere lanketa eta garapena bermatu nahi bada.

Horrela bada, ondorengo lerroetan Ikaskidetzaren testuingurek konpetentzien lanketarako eskaintzen diguten testuinguru paregabea azpimarratuz eta onartuz, eta funtsezko estrategia didaktiko-metodologiko gisa ulertuta, orientabide metodologiko orokorrak proposatzen ditugu.

Ondorengo lerroetan, beraz, ikaslearen garapen osasuntsua eman dadin eta landu beharreko konpetentziak lantzeko diseinatzen diren Ikaskidetzaren testuinguruaren ezaugarrietan fokatuko gara. Beti ere, presente izanda gelaz kanpoko beste eremuetan egin beharreko lanketa beharrezkoak izango direla garapena eman eta sostenga dadin.

Ikaste prozesuaren diseinua ikaskidetzaren testuinguruetan.

Gelan ikaskidetza testuinguruak sortzeko orduan hiru esku-hartze eremu hartu behar ditugu kontutan:

- a) **Talde kohesioa.** Taldean eta ikaskidetzan aritzeko eta ikaskidearen ikaskuntza bermatzeko ezinbesteko da taldearen kohesioa lantzea. Honetarako taldekatzea nola egingo diren, taldeen egonkortasuna... kontutan hartu beharrekoak dira. Horretaz gain, kohesioa indartzeko dinamika desberdinak txertatu behar ditugu gure diseinuetan: elkar ezagutzeko dinamikak, kooperaziorako dinamikak, distentsiorako jolasak.
- b) **Taldea bera ikasteko baliabide.** Taldean kooperazioan aritzeak ikasteko eta konpetentziak garatzeko baliabide ezin hobea eskaintzen digu. Horretarako lagungarriak egingo zaizkigu hainbat eta hainbat teknika. Teknika hauek ez dute berez ikaste prozesua bermatzen, baina lantresna oso baliagarriak dira ikaskidetza testuinguruak diseinatzeko orduan.
- c) **Ikaskidetzan aritzea ikasteko eta irakasteko konpetentzia.** Ikaskidetzan aritzen ikasi beharreko zerbait da. Gizarte trebtasunetan trebatzeko, planifikazioan trebatzeko, denboraren kudeaketan trebatzeko, gatazken kudeaketa positiboen trebatzeko espazio eta denborak diseinatu behar ditugu.

Ikaste prozesua antolatzeke sekuentzia

Momentu edo aldi nagusi batzuk hartu behar digu kontutan Ikaskidetzan oinarritutako proiektu edo prozesuak diseinatu eta gauzatzeko orduan. Aldi bakoitzak baditu bere ezaugarriak eta bakoitzean bai irakasleak zein ikasleek badituzte beraien beharrak eta martxan jarri beharreko estrategiak desberdinak izango dira:

- a) **Hasierako fasean**, ikaste prozesuaren aurrean **motibazioa** pizteko unea izango da.
 - a. Irakasleak **espektatiba baikorrak** sustatu beharko ditu,
 - b. **aurrezagutzak** aktibatu eta partekatu,
 - c. **helburuak** aurkeztu eta **lan plana** zein izango den zehaztea ere garrantzitsua izango da
 - d. eta, aldi berean, ikasleei beraien **lana kudeatzeko tresnak** aurkeztea (planifikazio fitxak, lan kontratuak, kronograma ...).
 - e. **taldeak eratzeko** unea da (girotze ariketen bidez, elkar ezagutzeko ariketak, talde identitatea sortzeko dinamikak), **kohesioan** eraginez, kohesioa landuz (rolen banaketa ...),

- f. eta ikaskidetzaren aurrean **jarrera baikorrak** suspertzea ezinbestekoa izango da.
- g. **Ebaluazio prozesua aurkezteak** ere berebiziko garrantzia izango du. Kontutan hartu behar dugu, ebaluatzen ez den horrek garrantzia galtzen duela askotan, hartara benetan zein konpetentzia garatzea nahi dugun (taldean aritzea bera esaterako) argi izan behar dugu eta horien jarraipena egiteko prozesuak aurkeztu ikasleei.
- b) Garapen fasean** ikasleen **ikaste prozesuaren erregulazioari** erreparatu beharko zaio bereziki. Irakasleak agertzen diren zailtasunei, oztopoei edota helburuak lortzeko orokorrean prozesuei arreta berezia jarri beharko die (oinarrizko konpetentzia eta konpetentzia espezifikokoak zein neurritan garatzen ari diren aztertu). Eta aldi berean ikasleei **norbanakoaren ikaste prozesua** (zer ikasi dut? Ze zailtasun ditut?nola hobetu dezaket?) eta bai **taldeko ikaste prozesua** (zer ikasi dugu? Ondo antolatuta gaude?lan egiteko modu hau baliogarri zaigu taldekide guztioi?nola aterako diogu etekin gehien taldeari?taldekide guztiak ikasten eta gustura daude?) **erregulatzeko** ikasteko baliabideak eta ereduak eskaini beharko dizkie (errubrikak, ebaluazio moduak: koebaluazioa ...) euren ikaste prozesua gero eta **autonomoagoa** izateko treba daitezten.
- Behin ikaste prozesuaren garapenean murgilduta, ekoizpen aurreko hausnarketa fasera hurbilduko gara. Une honetan garrantzitsua izango da ikasitakoa **sintetizatzea** (mapa kontzeptualak erabiliz esaterako), ekoizpena egitekorako unean ikasleek kontutan izan behar dutena definitzea eta baita ere **ebaluazio irizpideak birgogoratzea** (kontrol zerrendak elaboratuz, errubrikak errebisatuz ...).
- c) Ekoizpen fasea** ikasitakoa praktikara eraman eta aurkeztuko unea izango da. Ikasleek produktu bat elaboratu eta aurkeztu egin beharko dute. Ezin dugu ahaztu aniztasunak aniztasuna eskatzen duela, hartara ezin garrantzitsuagoa izango da ikasleen elaborazioetarako eta aurkezpenetarako bide edo formatu anitzak erabiltzea (testuak, bideak, ahozko eta idatzikoa aurkezpenak, irudi edo keinu bidezkoa ...). Ikasleei euren produktuen eta hauek elaboraziorako prozesuen (ekoizpen prozesua eta ikaskidetzaren prozesua) ebaluazioa egiteko baliabideak eskaintzen jarraitzea garrantzitsua izango da (errubrikak, ebaluazio txantiloak, errubrikak, hausnarketarako ariketak ...)

d) **Ekoizpen eta aplikazioa ondorengo fasean** ikasitakoaz **hausnartzea** izango da zeregin garrantzitsuena. Norberaren aukerez eta mugez hausnartzea eta taldearen indar-gunez eta ahulgunez hausnartzea. Beti ere hobekuntza estrategiak identifikatzeko. Horretarako **autoebaluazio**, **koebaluazio** eta **heteroebaluazio** prozesuak susta daitezke, baita ere txantilo edo errubrikak erabili (prozesu guztian betetako hauek aztertu) eta horien gainean hausnartu. Elkarriketak ere bizitako prozesuak berbalizatzeko baliagarri izan daitezke.

Fase hauetan guztietan oinarrizko hiru elementu agertuko dira uneoro:

- Batetik, landuko den materiaren helburu edo konpetentzia espezifikoak eta proiektua aurrera eramango duen jarduera nagusia (azken xedea).
- Bigarrenik landuko diren zehar konpetentziak eta horiek lantzeko erabiliko diren metodologiak.
- Eta azkenik landuko diren ebaluaziorako konpetentziak eta hau garatzeko metodologia.

Hiru elementu hauek fase ezberdin horietan zehazten dira prozedura, teknika eta estrategia ezberdinen bidez eta uneoro garatzen egongo diren oinarriak dira, alegia, ikaskidetzaren zutabe izango dira. Ikaskidetzaren ba, konpetentzien lanketarako marko aproposa izango da; konpetentzia horiek direlako prozesua bera ardazten dutenak.

Laburbilduz, Ikaskidetzaren prozesuak aipatutako faseetan oinarritu eta adierazko konpetentzietan ardaztuta gauzatu dira baina beti ere egitura ezberdin eta harreman sare anitzetan. Ikaskidetzaren ahalbidetu ez ezik sustatuko eta indartuko ditu ikasle (eta irakasle) ezberdinen arteko harreman osasuntsuak bai gelan bertan taldekatze mota ezberdinen bidez, zein eskolan edota komunitatean. Ikaskidetzaren printzipio garrantzitsuenetarikoa, bederen, **elkarrekiko, elkarrengandik eta batez ere elkarrekin ikastea** delako. Sarearen printzipioan du oinarri, beraz, ikaskidetzaren. Finean, etengabe elkarrekin eraikitzen eta hedatzen egongo den amaraunean batzen gaituen komunitatearen izaera indartu nahi du ikaskidetzaren; ikasle, gela, komunitate, ikastetxe eta herrien arteko sareak sortuz.



Aipatutako guztia laburtuz, azpimarratu nahi dugu. Taldean aritzea ez da elkarlanean eta kooperazioan lan egitearen sinonimo, ez da Ikaskidetzatza. Ikaskidetzatza honela definitzen dugu: **taldean eta kooperazioan ematen den ikaskuntza**. Horrela, ez da nahikoa taldean jartzearekin.

Goian aipatutako printzipioak bermatzen direnean ikasle guztien ongizatea bermatzen duen testuinguruan egongo gara, baina guztien ikastea bermatzeko beharrezkoa izango da ikasle bakoitzaren ongizatea bermatzeaz gain hauen gaitasunetatik abiatutako testuinguruak diseinatzea. Horretarako irakasle bakoitzak bere gela eta momenturako testuinguru berezi bat diseinatu beharko du, abiapuntua ikasle bakoitzaren gaitasunen porfolioa izango delarik, non nahiz eta taldean eraiki ikaste testuinguruaren ardatzak, bakoitzak bere ikasleen ikastea bermatzeko moldakuntzak egin behar dituen. Hala ere, sorkuntza hau konplexuagoa da eta irakasleek ikaste prozesu bat behar dute honaino iristeko. Egiten dugun honetatik hausnartu, ikasle bakoitzaren gaitasunak oinarrian hartu eta hobekuntzak proposatu eta aplikatzean berriz ikasle horiek ikastea ere bermatuko dugu. Hau da, eskola inklusiborako bidean egongo gara. Izan ere, ikasleen identitatea lantzen duten eskolak hartzen ditugu inklusiobotzat, ikasleek askatasunez direna hori izateko baliabideak eskaintzen dituen eskolak alegia. Ikaskide taldeek ongizatea bermatzen duen ikaste testuinguruak eskaintzen ditu; eta hori bada abiapuntua aniztasunari erantzuteko; hala ere, ikaskide printzipioak bermatzeak ez du esan nahi bere horretan inklusioa lantzen denik, ez eta ikasle guztion ikastea bermatzen denik ere. Baina ikaskide prozesuan irakasleek ikasten dute guztiontzako ikastea bermatzen duen testuinguruak eraikitzen, eta ondoren pasatuko ginateke identitatea lantzen duten ikaste testuinguruetara eta ondorioz eskola inklusibora.

7. EBALUAZIOA

Ikaste prozesuaren ebaluazioak eremu asko ukitu ditzake, txosten honetan, bi eremuetan jarriko dugu gure begirada: **ikaste prozesuaren diseinuaren inguruan egindako ebaluazioa** eta **prozesuan ikasitakoaren inguruko ebaluazioa**.

Ikasleak prozesuaren diseinuaren ebaluaketan parte hartzeak ikaste prozesuarekiko inplikazioa areatzen du azpimarratu dute Hargreaves-ek eta Shirley-k (2012).

IKASKIDE proiektuan ikasleen ebaluazioa ahalbidetzen dituzten estrategien erabilera sustatzen da. Hori dela eta, ikaste prozesuaren une desberdinetan ikasleekin batera balorazioa egiteko dinamika desberdinak sustatzea proposatzen dugu.

Irakaslearen prozesuaren balorazio eta hausnarketa

Estevek (2004, 2010) *Ikaste erreflexiboa* deritzan formazio eredu proposatzen du. *Ikaste erreflexiboa* ikuspegi eraikitzailean oinarritzen da, non formazioan parte hartzen duen irakasleak bere prozesuaren kontzientzia hartuz, bere jardueraz eta aukera posiblez hausnartuz eraikitzen du bere ezagutza. Horretarako ez da nahikoa ideiak elkartrukatzearekin, beharrezkoa da ere norberaren jardueraz hausnartzea. Testuinguru honetan norbere praktikaren behaketak eta honen inguruko hausnarketak funtsezko garrantzia hartzen du.

Norbere praktikaren inguruan gogoeta egitearen ildotik ere, Monereo (2010), eta Bilbao (Bilbao eta Monereo, 2011), arazoetatik edo irakasleak kezkatzen dituzten egoeren azterketatik abiatzea proposatzen dute: “ *se trata de identificar, junto con los actores implicados, el conflicto latente que pudo generar el IC, las distintas interpretaciones de lo que ocurrió y por qué ocurrió y el examen de formas diferentes de pensar, actuar y sentir que pudiesen activarse ante futuros IC de parecida naturaleza*” (Bilbao eta Monereo, 2011:138).

Ikaste prozesuaren ebaluazioa

Ikaskide Taldeen proiektuan benetako ebaluazioaren ikuspegiarekin lotzen dugu Enge eta Bustos; Monereo, C (2009). Ebaluazio honek ondoko berezitasunak ditu

- Kontestualizatua, ebaluazioan egoera errealak proposatzea.
- Multidimensional, ezagutza anitzaen erabilera ahalbidetzen duen ebaluazioa.
- Dinamikoak: denboralizazioari dagokionez prestakuntza eta garapena eskatzen duen ebaluazioa. Sekuentzia Didaktikoari begira ikaste prozesuaren une desberdinetan kokatu daiteke ebaluazioa. Sekuentzia Didaktikoaren **hasieran**: aurre ezagutzak, esperientziak, jarrerak eta ohituren identifikazioa bermatu behar du ebaluazioa. Sekuentzia Didaktikoaren **prozesuan**, autorregulazioa sustatzen dituzten ebaluazio jarduerak, eta Sekuentzia Didaktikoaren **bukaeran**, Feedbacka/hausnarketa, bultzatzen dutenak.



- Integratuak. Ezagutza anitzen erabilera bultzatzeaz gain ezagutzen arteko integrazioa eskatzen duen ebaluazioa egitea proposatzen da.
- Laguntzak. Elkarlanaren abiapuntutzat hartu daiteke ebaluazioa. IKASKIDETZAREN ikuspegitik ikaste prozesuan elkarlanean eta berdinkideen artean egindako ebaluazioak duten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Besteekin aritzeak estrategiak konparatzeko aukera ematen du, ondorioz, metakognizioa areagotzen du.
- Aurretik zehaztutak . Ebaluazio irizpideak ezagutzeak ikaste prozesuaren esanguratasuna areagotzen du eta autorregulazio estrategien garapena ahalbidetzen du. Horren adibidea ebaluazio errubriken erabilera.
- Kualitatiboak. Feedbackaren garrantzia azpimarratu daiteke atal honetan,
- Modalitate anitzak



7. IRAKASLEEN FORMAIZIOA

Talde honek garaturiko etengabeko formazio eta aholkularitza ibilbideak argi erakutsi digu berrikuntza eta eraldaketa prozesu honetan eskolek bide-laguntza behar dutela. Irakaslearen begiradaren aldaketa sustatzen duen bide-laguntza lan honen sarreran aipaturiko ikastearen gakoak uler eta propio egin ditzan: aurre hartzea (eszenatoki ezberdinak aurreikusiz egoera berriei aurre egitea) eta parte hartzea (kideztan, kooperazioan, eztabaida eta hitz eginez egitea). “Elkarrekintza hezkuntza eszenatoki aberasgarri batean da ikasleari baimentzen, gidatzen eta batzuetan eskatzen diona era eraginkor, autonomo eta sormenezko konpetentzien eraikuntza testuinguru hauetan” (Carr, 2006).

Irakaslearen pertzepzioaren eraldaketan eragin nahi duen bide-laguntza, lan honetan Guztiontzako Eskolarekin deskribaturiko printzipioen norabidean, ekitatea izaki eskola garapenerako instrumentu nabariena. Kalitatezko Hezkuntzari erantzun nahi dion bide-laguntza, guztiontzako arrakasta, osasungarria, segurua, abegikorra eta bertaratzen diren pertsona guztientzat eraginkorra dena.

Eskolaren papera aldatu egin da, informazioa transmititzeko gune izatetik jakintzaren sorrera eta bizitzarako gaitasun orokorren garapenerako gune izatera. Transmisiozko metodologietatik metodologia aktiboetara, ikaslearen ikaste prozesua bilakaturik prozesuaren ardatz, etorkizuneko gizartean nahitaezko diren gaitasunak garatzeko norbanako eta sozialak diren eszenatokien sorkuntzara. Segregatzailea den hezkuntzatik ekitatean oinarrituriko hezkuntzara. Bakarkako irakasle jardunetik Eskolako kolaboraziozko jardunera. Organizazio eredu zurrunetatik, egitura malguetara, eraldaketarako prestu dagoena. Aldi edo etapako ikaskuntzatik, bizitza guztian zeharreko ikaskuntzara, ...

Ekitatean oinarrituriko irakaskuntza ahalbidetzeko berrikuntzak txertatu behar dira Eskola kultura, politika eta praktikan.

IKAKIDETZAREN oinarritzako printzipioei erreparaturik ondoriozta genezake estrategikoki kideztan eta jakintzaren taldekako sormenean oinarrituriko irakaslearen formazio eredurak gerturatu behar ginatekeela. Eskolen parte hartze kulturalan eragina duena berau kideztan oinarrituz jakintzaren gestio bertako kide guztien artean ahalbidetzen duen



(ikasle, irakasle, familia, langile, ...) bizitzako atal garrantzitsua garatzen duten marko sozialeko parte hartze prozesuetatik.

Formazioarekiko Talde honek eginiko hautu estrategikoa Eskolen hobekuntzara bideraturiko eraldaketa prozesuetan kokatzen da, bertako profesional eta bereziki ikasleria osoaren bizi guztian zeharreko ikaskuntza izaki kalitatearen adierazpen gorenarekin.

Eskolak ikasleriarentzat ikaste Komunitate sozialak dira non ikasten ikastea eta elkarrekin ikastea kompetentziak testuinguru errealean garatzen diren. Bizi Proiektuekin inplikaturiko eta konprometituriko testuinguruetan eta kasu honetan kidez, kohesio sozialean, ezberdintasunen errespetuan, aniztasunean oinarrituriko elkarbizitzan, solidaritatean, kolaborazioan, ... printzipiotzat dituen markoan.

Proposatzen den ereduak eraldaketaren aspektu subjektiboari erantzuten die: irakasleen konpromiso maila, sinesmen, inplikazio eta inizatiba maila. Horretarako jakintzaren sormen, partekatze eta irakaste ekintzaren hobekuntza baimentzen duten testuinguru laboralak sortzeko baldintzetan eragiten delarik. Parte hartze, kidez, etengabeko formazioa, lidergoa eta plangintza partekatua beharrezko baldintzak dira etengabeko berrikuntza eta hobekuntzak denboran sostengatzeko baina berauen garapenean eraginkortasuna baldintzatua da talde profesionalean norbanakoaren mundu subjektibo horren esplizitazio eta aldaketaren baitan. Errealitatea eraldatzeko prozesu dialogikoez ari gara (Freire, 1984) egonkorak diren talde profesionalak praktikaren komunitateak eraiki eta bertan autoerregulatu eta hobekuntzak txertatu, adostasun, kontzientziak eta koherentziak, eskolako ikaste kultura garatuz eta honela gertuko gizarteari erantzun egokiagoa eskainiz.

Zeintzuk dira Ikaskide Proektuko formazio eta aholkularitza prozesuaren alderdi esanguratsuak garapen profesionala eta ikastearen hobekuntzan eragiten duten kompetentzia profesionalen garapenean?

- ✓ **Formazioa eskolako lan jardunari atxiki-tua egon behar da, gelara.** Ikasleen ikastearen hobekuntza bermatzeko eta esanguratsua izateko irakasleek beraien praktikez taldean hausnartu behar dute. Gelako jardunean aurkitzen dituzten arazo eta erronkei kolektiboki eta profesionalki erantzuteko

gaitasunen garapenera begira diseinatzen da formazio eredua, honela adierazpen profesionaleko hobekuntza eta berrikuntzak denboran ere mantentzen direlarik.

Eskola egitura osoan eragina daukan prozesua da berau, taldean profesionalki ikasle guztien ikastea hobetze aldera jarduten duten irakasleek partekatua izan behar dituzte hezkuntzarekiko balio, sinesmen, helburu eta printzipioak. Eskola proiektu identitate eta ikurrekiko lotura eta konpromiso maila altuak zein kidez harremanak beharrezkoak izango dira talde honen eratzeko eta mantentzerako.

Irakasleek beraz eskolako ikaste kultura garatzeko autonomia izan behar dute bere jardunarekiko erabaki eta ekintzetan, honi arduraz erantzuteko eta horrela proiektu eta parte hartze egiturekiko konpromiso batzeko, hau da, luzaroan mantentzeko (Bolivar....).

Arestian aipaturiko begirada aldaketak ere ikaslearen eta ikastearen pertzepzio eraldaketaz esku hartze eremuaren zabaltzea gauzatzen da. Ikasleen ongizana bermatze aldera komunitatearekiko korresponsabilitate harreman esanguratsuak eraikitzea nahitaezko bihurtzen da, eta ere berean ikaste testuinguruen proposamena sozial eta irekiagoa gauzatzen da.

✓ ***Izaera erreala*** (Korthagen, 2010).

Eskolen errealitatetik eraikitzen den prozesua da, bakoitzak bere ikaste ibilbidea gauzatzen duelarik. Ekintza eta praktikatik profesionalen talde hausnarketa kolektibo dialogikoez teoriarekiko lotura sustatzen da Eskola Ikaste Kultura garatzen da.

Eskola Ikasten duen Organo modura ulertuta formazio eta aholkularitza ereduak kontuan izan behar ditu errealitate bakoitzaren adierazpen, premia eta erronkak, bai gestio, lidergo, organizazio zein kultura adierazpenak ere.

Egiten eta elkarrekin gauzatuko den hobekuntza prozesuaren gako eskola etengabeko berrikuntzara prozesurako autonomiaz jarduteko gaitasunen garapenean datza. Beraz Eskola bakoitzak bere autonomiarako ikaste ibilbide

propio garatuko du. Prozesua adostasun eta parte hartzean oinarrituz, ikaskidetzaren printzipioetan oinarrituriko harreman eraikitzaileak gara ditzaten eta kolektiboaren konpromiso eta perteneziaz organo autonomo bilakaturik.

✓ ***Izaera dinamikoa eta malgua.***

Errealitate bakoitzaren ezaugarrietatik eraikitzen den formazio ereduak adierazten du Eskola bakoitzean egiten denetik eta bertako lidergo, konpromiso maila, organizazio, gestio eta kultura adierazleek markatzen dutela formazio ekintzen abiapuntua. Malgutasunak erritmo eta ibilbide anitzen gauzatzea baldintzatzen du eta honek eraldaketaren oinarrian dagoen gaitasun profesionalen garatzearen eraginkortasunean eragiten du.

✓ ***Formazio eta aholkularitza berdinkidetzan oinarrituriko laguntza harreman modura ulertu behar da.***

Prozesuaren metodologian oinarritua, Eskola eraldatze unitate modura ulertuz beraien prozesuaren autonomia garatzen da.

Hezkuntza testuinguruaren beharren interpretazioan laguntzen duen berdinkidetzaren honetarako praktikaren azterketa konprometitua ahalbidetzen duten aholkularitza prozedimentu erraztatzailerak garatzen dira.

✓ ***Aholkularitza eta formazioak komunitate bakoitzaren hobekuntza beharrei erantzun behar die.***

Ikasten duen organoak SARE egitura aniztetik jasotzen ditu hobekuntza eta berrikuntzarako ito estrategikoak. SARE egitura beste eskola, unibertsitate eta hezkuntza agentez osatua egoteaz gain erralitate lokaleko adierazpen guneei irekia egon behar du. Gertuko errealitatearen beharrei erantzun egokia eman nahian eskolek komunitateko adierazpenetan barne berrikuntzarako ikas guneak identifikatu eta elkarrekin hezitzaile den komunitate edo lurralderantz aurrerapauso eta proposameneren lidergorako oinarriak gara ditzan.

✓ **Praktika eta gogoeta formazio prozesuen oinarri gisa.**

Prozesu osoan zehar praktikaren inguruko gogoeta presente dago. Bai irakasleek bere praktikaren inguruan egiten duten gogoeta, bai aholkulari taldeak bere praktikaren inguruan egiten duen gogoeta (Estevek, 2004, 2010; Monereo, 2010; Bilbao eta Monereo, 2011).

Lehen aipatu bezala ikasleengan zein irakasleengan garatu nahi diren kompetentziak eskolan eta irakasleriaren formazioan erabili ohi diren estrategia aldaketa eskatzen dute. Zenbait autoreek ohiko formazio ereduak akatsak atzeman eta formazio eredu berrien oinarriak eta estrategiak garatu dituzte. Ezagutzaren transmisioan oinarritutako ereduak gainditzeko beharra azpimarratzen dute eta ikasleen inplikazioa afektiboa zein kognitiboa bultzatzen duten estrategia metodologiko berriak proposatzen dituzte, halaber, irakaslearen rola aldatzeko beharra (Zabala eta Arnau 2007; Perrenoud 2001, 2012).

Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleen kompetentzien garapena oztopatzen dituen formazio ereduaren pareko hutsuneak eta zailtasunak antzeman dira kompetentzia profesionalak garatzeko orduan. Shön-ek (1992) aldarrikatutako jardueran oinarritutako hausnarketaren beharra eta berau bultzatzeko estrategiek, eragin handia izan dute irakasleriaren formazio ereduak aldatzeko azken urteetan garatu diren proposamenetan.

Korthagen-ek (2001, 2010) ohiko formazio ereduak teoria eta praktikaren artean sortzen dituzten etenak azaltzeko irakasleriaren formazioa bideratzeko ohikoak diren hiru eredu azaldu ditu: ikaste deduktiboa, ikaste praktikoa eta ikaste errealista. *Ikaste deduktiboa* jakitetik abiatzen da; teoria ikastetik alegia, eta uste du teoria jakitea nahikoa dela egiten jakiteko. *Ikaste praktikoa* saio eta hutsegitean oinarritzen da teoriari erreferentziarik egin gabe. *Ikaste errealistak* ezagutza teorikoaren eta praktikaren uztarketa egiten du; beti ere, irakaslearen esperientzia praktikoetatik abiatuz eta hauen inguruko etengabeko hausnarketa egitea, bakarka zein taldeka, proposatzen du. Hausnarketa prozesua antolatzeko ALACT izeneko prozesuaren hurrenkera aurkezten du (Action-Looking back on the action- Awareness of essential aspects-Creating alternative methods of action-Trial).

✓ **Elkarrekintza banakako eta talde ezagutza garatzeko tresna gisa. Ikaskidetza**

Orain arte aipatutako proposamenek norbanakoaren formazioan kokatzen dira. Nahiz eta taldearen garrantzia azpimarratu, norbanakoaren hausnarketa suspertzeko eta aberasteko proposamenak dira.

Hezkuntza ereduaren eraldaketak, ostera, komunitatearen inplikazioa eskatzen du. Horren harira Fullanek (2002b) proposatzen dituen “Ikaskuntza Komunitateak” ereduaren zenbait printzipio beharrezkotzat jotzen ditugu banakakoen hobekuntza ez ezik hezkuntza komunitatearen hobekuntza lortu ahal izateko. Fullanek (2002b) “Ikaskuntza Komunitatearen” ondorengo berezitasunak aipatzen ditu: taldeko helburu komun bat izatea, proiektuarekiko talde konpromisoa egotea, taldekideen partaidetza ahalbidetzen duen antolaketa eta ezagutza partekatzea ahalbidetuko duen hizkuntza komun bat izatea.

Komunitate sentitzen gara inplikatzeko garenean, parte hartzen dugunean eta konektatuta gaudenean. Hiru faktore hauek zalantzarik gabe komunitatea sortzen eta kideen laguntzen dute.

- a. *Inplikazioa*: enpatiatik mobilizaziora pasatzea ahalbidetzen du; delegatze eta dependentziazatik, ekitera eta konpromisoak hartzeko urratsa ematera.
- b. *Parte hartzea*: norbere baliabideak erabiltzeko, ahalmenak eta erabakitze eta kontrolatzeko gaitasuna erabili.
- c. *Konexioa*: Bai inplikazioak eta baita parte hartzeak ere aurrez pertsonen eta taldeen arteko konexio beharra dute. Horretarako ezinbestekoa da interes edo behar komunak eta osagarriak aitortzea, erantzukizun sozialerako balio berberak partekatzen dituztenak.

Praktika Komunitatea ikastea nola garatzen den ikusteko era bat da, bertan “praktika” kontzeptuak pertzepzioa edo ulermena gako izanik. Langile profesionalen artean jakintza ez dator klase magistral batetik, praktikan egiten duten eta kideekin partekatzen dutenetik baizik. Honek praktika funtzio

formatzailez eta kualifikatzailez janzten du (Bolivar, 2012), Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorrez ari gara (Bolivar, 2012).

Aipatutako printzipioak bat datoz Ikaskide proiektuaren bidez Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleekin garatu nahi diren Ikaskide Taldeak estrategia metodologikoaren printzipioekin.

✓ ***Ikaskidetza.***

Prozesu guztian zehar eta momentu oro ikaskidetza lantzen da ikaskidetzan lan eginaz. Formazio testuinguru guztiak –aholkulari taldearen lan saiok barne- ikaskidetzan egituratzen dira. Ikaskidetzak prozesu osoa bustitzen du, beraz.

Lan egitura eraginkorrerako harremanen lanketa zuzena espezifikoki jorratzen da. Honela formazio eredu eta aholkularitza prozesuan partaideak jakintza sortzaile bihurtzen dira, hau da, beraien profesioan etengabe berritzen eta hobetzen duten agente autonomo, kritiko, arduratsu eta konprometituak.

8. ESKOLA INKLUSIBOA

Atal honetan jasotako informazioarekin bat gatoz baina gure iritziz eskola inklusiboaren gakoak dira Euskal Sistemak erreferentzia hartu behar dituen; edozein umek edozein Euskal Herriko eskoletan kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea du, guretzat eskola inklusiboa ildo estrategikoa baino sistemaren ikuspegia izan behar du.

Hezkuntza kalitateaz luze hitz egin da orain arte eta jarrituko dugu horren inguruan hitz egiten baina hurrengo lerroetan gure iritziz Hezkuntza Sistemak eskaini behar duena azalduko dugu.

Kalitatezko hezkuntzaren beharra azpimarratu nahi dugu, kalitatea bazterketa eza ziurtatzeko elementu gako gisa ulertuz. Hots, hezkuntza kalitatezkoa izango da, baldin eta **persona guztiei bizitza sozialeko alderdi guztietan parte hartzea ahalbideratuko dioten konpetentzia praktiko eta gaitasunak bermatzen bazaizkie, ikaskuntzarako eta bizitza aktibora iragateko programetara sarbidean aukera berdinak edo ekitatiboak ziurtatuz**. Ikasle bakoitzak bere gaitasun, potentzialtasun eta aukerak ahal bezainbeste garatzean datza, horretarako beharrezko zerbitzu, bide eta bitartekoak eskainiz: honek, ikastetxeetan hori ahalbideratzen duten testuinguruak



sortzeaz lotura dauka. Ikasle guztien garapen, ikaskuntza eta partaidetzarako hezkuntza erantzunak erraztu eta ahalbideratzen dituzten espazio sozialak sortzea eskatzen du.

Testuinguru honetan pertsona orok garatu beharko genuke ezagutza modu eraginkorrean sortu eta erabiltzeko gaitasuna, etengabeko eraldakuntza oinarrien gainean; horretarako, beharrezkoa izango zaigu herritar aktibo gisa beharrezkoa den gure autonomia garatu nahi eta ahal izatea (EUR-OP, 1999 In Domingo, J., 2003). Eredu honen baitan aurre-hartze eta parte-hartzea ikaskuntzarako oinarritzko gako bihurtzen dira.

Aurre-hartze, eszenatoki anitzak aurreikusi eta egoera berriei aurre egiten ikastearekin lotzen da, horretarako ekintzarako bidean alternatiba eta ondorio ezberdinak baloratzeko gai izatea, eta erantzun ezberdinak aktibatuz. Parte-hartzeak berriz, elkarrekin, elkar-lanean, elkarriketan eta eztabaidan oinarrituz egitea esanahi du.

Ezaugarri hauek beraz, dezente aldentzen dira irakaskuntzan ardazturiko ikaskuntza prozesuetatik, non aurreikuspena egokitzapenez lotzen den eta parte-hartzea onarpenaz. Batetik bestera dagoen alde horrek hezkuntza berrikuntza oro gidatu beharko lituzke.

Ikasle guztien ikaskuntza berritzaileari erantzun ahal izateko, beharrezkoa litzateke bada, metodo didaktiko-pedagogiko egokiak erabiliz, eta ikasle taldearen aniztasunari erantzunez, ikaste-testuinguru egokien, hau da, ikasle guztien ezagutza garatzera bultzatuko duten egoera-arazoen diseinu eta prestakuntzara bideratutako irakaslearen figura. Finean, **ikaskuntza indibiduala eta kolektiboa, eta beronen erabilera produktiboa erraztuko duten testuinguru/egoera/eszenatokien eraikuntzaz lotuta legoke (Hopkins, 2000:144).**

Hargreaves eta Shirley-k (2012) azpimarratzen dutenez, Kalitatezko Hezkuntza sistemek ikuspegi inklusiboa garatu dute hezkuntzaren zereginaz eta gizartean bete behar dituen funtzioez egindako hausnarketan. Ikuspegi horrek kohesioa ematen dio sistemari eta, beste alde batetik, gai da partaide guztien inplikazioa lortzeko.

Orain arte deskribatu dugun ikaskuntza prozesu hau **ikaskidetzan** oinarrituta ematen da, pertsonaren garapena (ezagutza, jarrerak, harremanak, lankidetzak ...) elkarrekintzaren bidez eraikiz. Beraz, eskola eta gela mailan komunitateetan antolatzen



gara hazteko, eta hezteko. Vygotskyren pentsamendu jarraiki, bestearen beharra daukagu, bestearekin elkarrekintzan hazten gara, hezten gara eta eraikitzen dugu gure ikaste prozesua.

Halaber, ikasgelatik at egon badaude beste ikaste eremu batzuk ere, non ikaskuntza esperientzia esanguratsuak ematen diren jaiotzen garenetik hil arte, esaterako, kalean, herrian, aisialdirako espazioetan etabar. Beraz, eremu guzti hauek ere aintzatetsiak izan beharko lirateke. Horrek, ondorioz, lurraldean, komunitatean pentsatzera garamatza. Eskolarekin harremanak garatuz, konprometitua, parte hartzailea eta erantzukizunak hartzen dituen komunitatea irudikatzen dugu. Komunitateko kideak gaitzen eta prestatzen dituenak, gizarte berrikuntza egiten duenak erakunde eta eragileekin batera. Hau da, lurraldearen baitan hainbat osagai aintzat hartzen dituenak: giza kapitala (ezagutzak, trebetasunak, gaitasunak); balioak partekatzen dituen eta elkarlan, elkartruke eta konfiantzan oinarritutako gizarte kapitala; eta gizarte egoerak aldatu eta hobetzera bideratutako gizarte berrikuntza. Beti ere, pertsonen, gizartearen, eta herriaren garapena eta ongizatea xedetzat izanda.

Ondorioz, zera esan dezakegu, Eskola eta beste ikaste eremuen arteko loturak estua, dinamiko edo bizia izan behar duela; eta baita estrategikoa ere. Baina, eremu eta erpinen arteko lotura edo elkar-lan hori lankidetzan oinarritutako lan-moldeetan egikaritzea beste biderik ez dago, komunitateko partaide guztiek, bizitzako aro eta garai guztietan kalitatezko heziketa, eta bizi kalitatean eta ongizatean hobekuntzak, garapen pertsonal, sozial eta komunitarioa, desberdintasun sozialen desagertzea eta justizia soziala bermatuak izateko.

Gauzak horrela, eskolak bere baitan jardun du erabakitzen, kanpoko laguntza eskatu eta jaso gabe. Oraindik orain, eskolak bere hezkuntza proiektuak bere baitan egitetik, hezkuntza proiektu komunitarioetara - erantzule eta eragile hezitzaileak, sozialak, politikoak, teknikoak, kulturalak,... - jauzi egin behar du. Proiektu egingarriak, harreman fluxuak eta elkar ezagutza errazten dutenak. Ardura honetan kokatu beharko dira tokian tokiko **Hezkuntza Sareak**.

Eskola eta komunitatearen elkarlanean oinarritutako egitasmoak, proiektu komunitarioen egikaritzeak herriaren beharrei modu oso batean erantzutea ahalbidetzen du eta erantzun horrek, **ikasle ororen ongizatean eragiteko xedea dauka**. Eragile ezberdinak bakoitzak bere egitetik elkarlanean diharduelako eta arlo

formalak eta ez formalak uztartzea dakarrelako bere baitan eta **ikasleen oinarrizko konpetentziak garatzeko ikaste-testuinguru anitzak eskaintzeko parada** ematen duelako. Hau guztia ikasleen garapen osoa ahalbidetzeko, hots, ez soilik ikasle soil bezala baizik eta herritar moduan hezteko. Herritar aktibo, parte hartzaile, autonomo, kritiko eta bere bizi-proiektuaren arduradun izaten dakiena, beraz, **erakundeen arteko sare-lanak eskolarekin herritar oren ongizatea jomuga izango du.**

9.- IKASTETXEEN AUTONOMIA ETA KONTROLA

Ikastetxeen autonomia atalean berau organo modura ulertze alderako ekarpenak egin nahiko genituzke, zuzendaritzaren paper eta lidergo pedagogikoan kokatze aldera.

Hezkuntza eskubidea eta aukeren berdintasunaren markoan kalitatezko eskolaz ari gara ikasle guztien ikastea hobetzen duenean, guztion arrakastan oinarriturik, norbanakoaren potentzialitatea bizitza guztian zehar garatzeko aukera bermatzen denean (Martinez, 2011).

Horretarako aproposak diren ikaste testuinguruak eskaintzen ditu ikasle guztiek beraien gaitasunekiko garapen maila altuen lor dezaten. Kalitatezko eskola litzateke gizartearen garapenerako gertuko komunitatearen inplikazioa lortzen duena eta gainera etengabeko hobekuntza bidean zentroaren bertako profesional guztien garapen eta ikastea sustatzen duena (Martinez, 2011):

- Ikasle guztien ikastea hobetzea helburu duena.
- Ikasle guztien beharrei erantzuten duena.
- Eskaintza malgua duena.
- Porrotaren kontzepzioa ez daukana.
- Elkarbizitzarako espazio soziala dena, pertenezia eta sozializatorako guen, gizarte demokratiko baterako ikaste espazioa.
- Guztiontzako bizi guztirako ikaskuntza markoan errotoa dagoena (UNESCO, 1990).
- Biztanleriaren egungo beharretara ekintza eta estrategiez egokitzen den eskola.

(ORCASITAS, 2005:75-76).

Eskola egitura eta funtzionamenduaren oinarria Praktika Komunitatea da. Praktika Komunitatea ardura, arazo multzo bat edo gai batekiko pasioa partekatzen duten pertsonen osatzen dute eta beraien arteko jarraikako interakzioari esker beraien esperientzia eta jakintza areagotzen da (Wenger, McDermott eta Snyder, 2002). Helburu komun bat izanik elkarren arteko konpromiso indartsua, parte hartze arduratsua eta hizkuntza bateratu batekin esanahi berrien adostasunetara iristen dira (Martinez, 2011), etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatuz.

Praktika Komunitatea ikastea nola garatzen den ikusteko era bat da, bertan “praktika” kontzeptuak pertzepzioa edo ulermena gako izanik. Langile profesionalen artean jakintza ez dator klase magistral batetik, praktikan egiten duten eta kideekin partekatzen dutenetik baizik.

Honek praktika funtzio formatzailez eta kualifikantez janzten du (Bolívar, 2012).

Kalitatezko eskolek ikasleen ikastea bermatzeaz gain bertako irakasleen garapen profesionala baimentzen dute, irakasleriaren garapen profesionalak, Imbermón (1994)ek dioten bezala, irakaste praktikaren jarraikako ikaskuntza eskatzen du, egunerokotasunean anitzak diren gertaera eta egoera indibidual zein taldekoei erantzun egokia eman nahian, buruturiko praktikaren hausnarketa eta azterketatik sistematikotik elikatzen dena.

Irakasleen ikaskuntza taldean ematen da (Fullan, 2004), eskolak jakintzaren sorrera partekaturako, berau komunikatzeko eta hezkuntzaren ekintza praktikak hobetzeko testuinguru laboralak izan behar ditu. Errealitatea eraldatzeko prozesu dialogikoez ari gara (Freire, 1984) egonkorrak diren talde profesionalak praktikaren komunitateak eraiki eta bertan autoerregulatu eta hobekuntzak txertatu, adostasun, kontzientziaz eta koherentziaz, eskolako ikaste kultura garatuz eta honela gertuko gizarteari erantzun egokiagoa eskainiz. Orcasitas (2005)en “formación en la práctica”.

Praktiken hausnarketatik ikasten eta berritzen duen komunitateak luzaroan irauteko, hau da, ikasleen ikastearen hobekuntza luzaroan mantentzeko nahitaezkoa da talde eta kideetarako sostenguak izatea zentro mailan (Bolívar, 2013). Eskolako organizazioaz gain, praktiken hausnarketarako tarteak eskaintzeaz gain, berrikuntzarako kultura garatu ahal izateko baliabideak eskaini behar ditu. Egoera hau erabat erlazionatua dago lan giroak irakasleei beraien lanarekiko konpromiso eta erresponsabilitatea garatzearekin. Honek lidergo eta organizazio estuktura parte hartzaileetara



garamatza. Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorreko kideek hezkuntzarekiko Misio, Ikuspegi, Balore eta Helburuak partekatu eta adostuak izatea eskatzen du baina motibazio pertsonal eta konpromisotik eraikia izan behar du hezkuntza aldaketaren teoriaran jasotzen den moduan (Bolivar, 2013).

Askatasunez, autonomiaz eta era berean arduraz edo erresponsabilitatez harturiko norbanako erabakiak jardunean hartzen duen pasiozko formarekin erlazionatua definitu genezake konpromisoa. Beraz konpromisoa eman eta gara dadin autonomiaz eta arduraz edo erresponsabilitatez erabakiak hartzeko aukera izan behar dute irakasleek.

Egoera honek lidergo eta gestio mota horizontaletara garamatza. Eskola ikasten duen organo modura ulertuta eta eraldaketarako gunea eskola dela adierazita, irakasleek hitza eta errekonozimendua izan behar dute eskola mailan. Honela Misio, Ikuspegi, Balore eta Helburu propio eta partekatuak eraiki, autonomiaz eta erresponsabilitatez adostuak direnak, beraz propio eta berauekiko konprometituak (Bolivar, 2013). Horrek adierazten digu pasioz eta leialtasunez jokatzeko aukerak izango dituztela eta ondorioz berrikuntza kultura sustatzeko oinarriak izango dituztela.

Irakasle arduratsutik eskola arduratsura autonomiaz beraien erabakiak hartzeko aukerak dituzten eskolak eta ikasle guztien ikastea hobetzearekin konprometituak.

Ikasleen ikastearen hobekuntza ezin da denboran luzaroan mantendu hau ez badago eskola mailan talde eta kideetatik sostengatua (Bolivar, 2013).

Laburbilduz; Hezkuntza eskubidea oinarri izanda kalitatezko hezkuntza ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen duena litzateke. Horretarako irakasleek ikasle guztien ikastea hobetzeko profesionalen artean praktikez sistematikoki hausnartu behar dute, egunerokotasuneko eta gertuko gizarteari erantzun egokia eman eta etengabeko berrikuntza kultura eraikiz.

Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorra luzaroan iraun dezan, eskola organizazio, gestio eta kultura espezifikoak izateaz gain bertako lankideen konpromisoa sustatu eta mantentzeko giro eta espazioak eskaini behar ditu, autonomia irakasle eta eskola mailan arduraz eta erresponsabilitatez beraien erabaki eta ekintza ildoak aukeratu eta aurrera eramateko. Inplikaziotik, babes, errespetu, ... eskola profesionalki zein

pertsonalki hezteko espazioa bilakatuz. Bertan dauden kide guztien aspektu afektiboak zainduz pasioz ekin eta ikasle guztien ikastea hobe dezaten.

Aurreko atalean aipatu diren ideiez gain eta txostenan azaltzen direnak osatzeko asmoz, hona hemen, IKASKIDE proiektuaren ardatza diren zenbait ideia:

Irakaskuntza prozesuei zuzendutako lidergoa indartzea. Zuzendarien gestio funtzioak erraztu eta irakaste-ikaste prozesuen inguruko elkarlana sustatzea

- . Irakasleen arteko elkarlana bultzatu
- . Elkarrekin ikasteko estrategiak bultzatu
- . Esperientzia duten irakasleen jardueren behaketa bultzatu

Aipatutako liderren profilak lidergo banatuaren ereduak dira. Eredu honetan eguneroko ezagutzatik eta irakasleriaren gaitasunetatik eraikitzen dira hobekuntzak, irakasleak hobekuntzen inplementazioan baino hobekuntzen identifikazioan eta eraikuntzan inplikatzeko dituzten liderak. Fokoa, beraz, irakasleengan jartzen da, eta ez liderrean.

Bestalde, ikasleen inplikazioa azpimarratu nahi dugu. **Ikasleen inplikazioari dagokionez** bi bide proposatu daitezke: Ikasleak aldaketaren parte bihurtzea eta ikaste prozesuan inplikatzeko. Bide biak elkarrekintza, erantzukizuna eta gogoeta dituzte ardatz

Ikaskide proiektuan (2013) izandako esperientziak erakutsi digu taldean eta kooperazioan ikasteak onurak dakarziela ikasle zein irakasleei, giro eta egite era honetan identitate eta pertenezia zein konpromiso adierazle espezifikoak garatzen baitira eta honek autonomiaz, askatasunez eta konpromisoz eragiten duen funtzionamentua dakarrela. Horrela irakasleen iritziz esperientziaren ontasuna loturik ageri zaigu ikaskuntza moldearen sakontasunean sumatu duten aurrerapenarekin.

- Aipatu da, ikasleen heldutasuna, bizitzarako nahiz ikasketetarako, bizkortu egin dela. Ardurak eman zaizkienean oro har haiei heldu dietela ikasleek.

- Aktiboagoak sentitu dira oro har ikasleak. Parte hartzaileago jokatu dute, euren heldutasun sententzia areagotuz.

- Ikasleen motibazioa ere areagotu egin da. Berrikuntzek dakarten bultzada berriak zerikusia izan dezake horretan. Estimulazioa lantzeko jarduerak ugari egin dira. Ariketa

askok kutsu esperimentalak izan dute, eta baita eguneroko bizitzarekin lotura ere. Honek zubiak eraiki ditu ikastetxetara eta euren jakin-minaren artean.

10. IKASTETXEAREN AUTONOMIA ETA HIRI HEZITZAILEA

Nola ulertzen dugu Herri edo Hiri hezitzailea? Galdera honi erantzuna eman eta Haurrasate egitasmoan herria subjektu hezitzaile (Ortega, 1990; Trilla, 1999) moduan ulertzeko eta aztertzeko definizioarako gako batzuk aurkezten dira hemen:

- **Pertsonak ardatz gisa:** Herritarren bizitza barne hartzen duen proiektua, hauek protagonista bilakatuz
- **Hezkuntza eragileak egitasmoaren muina:** tokiko administrazioaz gain, elkarte, erakunde, hezkuntza zentro eta eragileei ere badagokion proiektua.
- **Izaera hezitzailea:** Helburutzat zentzu hezitzailean eta elkarlanean politikak eta jarduerak garatzea duena.
- **Xedea:** herritarren bizi-kalitateari eragitea, herritarren izaera eta demokrazia parte hartzailearen eta solidarioaren baliotan aritzeko asmoa duena.

Kontutan hartuta bizi garen jendartean beharrak eta eskakizunak eskolaz harago doazelako eta erakunde publikoen esku soilik ez dagoela, **erakundeen arteko sare-lanak eskolarekin herritar ororen ongizatea jomuga izango du.**

Eskola eta komunitatearen arteko sare-lanerako gakoak:

- Herri/hiri hezitzaile edo antzeko ezaugarriak betetzen dituzten hezkuntza egitasmo komunitarioak Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuetan (IHP) azaltzen diren hainbat balore landu ahal izateko potentzialtasun handiko proiektuak izan daitezkeela uste dugu: oso modu praktikoan ikastetxearen benetako beharrei erantzuteko aukerak eskaini dezakete. Eta horrek emango dio balio erantsia ikastetxearen proiektu eta eguneroko jardunari
- **Eskolaren papera:** Ukaezina da, ezagutza ez dagoela soilik eskolan, ez dago soilik irakasleagan. Ezagutza leku askotan dago eta egon daiteke. Eta honek bi galdera potoloren aurrean jartzen gaitu hezkuntzako profesional eta baita herritar moduan ere: zein gizarte mota eraiki nahi dugu? Beraz, momentu sozio-historiko honetan

eskolaren zeregin nagusiaz eztabaida kolektiboa eman beharko litzatekeela uste dugu. Eskolak bizitzarako prestatu behar badu, honen funtzioak birformulatu eta berrantolatzeke garai interesgarria izan baitaiteke.

- Honi erantzuteko garbi dago ikastetxean lan egiteko moduak horizontala eta operatiboa izan behar duela.
- Eta gako nagusietarikoak ikasturtean ondo planifikatzean egongo dela. Oso interesgarria litzateke planifikazioak guraso eta ikasleekin partekatzea, eta hemendik proposamenak ateratzea. Sekuentzia didaktiko hauek planifikatzerako orduan irakaslearen zeregina beste baliabide batzuk erabili, beste eragile batzuegana jotzeko aukerak ikusi eta baliatzea izango da nagusiki. Eta egiten diren proposamenak ez izatea ekintza solteak, baizik eta zeharkako ildoak, ikastetxean integratuak daudenak izatea.
- Indar-gunea handia litzateke maila guztien eta irakasle-talde guztiaren inplikazioa lortzea.

Laburbilduz, horrelako egitasmoak aterki egokiak zian daitezke Hezkuntza Proiektuko hainbat balore lantzeko, eskola irekitzeko, oinarrizko konpetentziak lantzeko eta eskola bera eta honen barruan irakaslearen rola aldatzeko.

- *Komunitatea ulertzeko era:* Gehiegizko profesionalizazioagatik eta errealitatetik urruntzeagatik besteak beste, sistema demokratikoak krisian daude. Horrek gizalegezko gaiei arreta gehiago jartzea ekarri du, aipa ditzakegu herritartasun aktiboa eta inplikatzeko gai dena, parte hartzeko eta sistemaren jarreraren aurrean arreta mantentzen duen herritargoa. **Komunitatea** da era honetako **ikaskuntzak burutzeko gune** bezala.

Garrantzitsua da aditzera ematea, komunitateak lur eremu berean bizi direnek osatzen dutela, jardun ekonomiko ezberdinen elkarrekintza duena eta gobernatzen den unitatea dela. Dena dela, komunitateak elkarren arteko **harremana eta inplikazioa** adierazten duela.

Ohikoa da “eskola komunitatea” edo “hezkuntza komunitatea” adiera erabiltzea, helburu komunak eta atxikimendua partekatzen duten eskolako irakasle taldea, ikasleria, zerbitzuetako langileak eta gurasoek osatutako multzoa adierazteko. Nahiz eta sarritan (beti ez esatearren) adiera honen erabilera

komunitatearen alderdiekin baino hezkuntza alderdiekin lotu. Esan beharra dago, eskolan familia-artean sortzen diren loturak baino, bertan egiten den heziketa lanaren intentsitateak (denbora, bizitzako une esanguratsuak, afektuzko loturak, ...) interes komunak izateko konplizitatea sustatzen duela.

Aurrekoari jarraiki, iruditzen zaigu, eskola ezin dela ezagutza eta gaitasunak garatzen dituen erakundea izan soilik. Eskolaren eginkizunak beste dimentsio bat hartzen du, hala nola, eredu kulturala, baloreak, arauak eta bizikidetzarako eta harremanak izateko moduak lantzen duen agertokia bihurtuz, alegia **tokiko-komunitatea eskolan eta eskola tokiko-komunitatean murgilduz**.

- Aitzinean agerian utzitako eskola eta komunitatearen zentzutik, testuinguruaren logikatik ulertu eta konpondu behar dira, alegia, tokiko komunitatearen eremutik. Beraz, eskola komunitatean orain arte hezkuntzarekin zein bizikidetzarekin loturiko arazoak konpontzeko eginiko ahalegina hezkuntza-zentrotik bertatik egin izan da. Azken batean, komunitatean konpondu ahal izateko bideak eta moduak pentsatu behar dira, gaiarekiko hierarkiarik gabe. **Zeren eta eskolatik kultura, herritartasuna, lurraldea egin daitekeen bezalaxe komunitatetik hezkuntza egiten da, heziketaz, baloreez eta edukiei buruz eztabaidatu daiteke, bai horixe.**
- Komunitateko kidetza sustatzeko osagaiak: inplikazioa, parte hartzea eta konexioa/sarea. Komunitate sentitzen gara inplikatzeko garenean, parte hartzen dugunean eta konektatuta gaudenean. Hiru faktore hauek zalantzarik gabe komunitatea sortzen eta kidetzen laguntzen dute.
 - *Inplikazioa:* enpatiatik mobilizaziora pasatzea ahalbidetzen du; delegatze eta dependentziatik, ekitera eta konpromisoak hartzeko urratsa ematera.
 - *Parte hartzea:* norbere baliabideak erabiltzeko, ahalmenak eta erabakitzeko eta kontrolatzeko gaitasuna erabili.
 - *Konexioa:* Bai inplikazioak eta baita parte hartzeak ere aurrez pertsonen eta taldeen arteko konexio beharra dute. Horretarako ezinbestekoa da interes edo behar komunak eta osagarriak aitortzea, erantzukizun sozialerako balio berberak partekatzen dituztenak.



Kidetasuna eta banakako zein behar kolektiboei erantzuteko parte hartzeko nahia sustatzea eskoletan eta erakundeetan: Gure bizi baldintzak okertzen doazen neurrian, bizikidetzaren indartu beharra dago. Arduragabekeriaren eta geurekoikeriaren aurrean, beste balio etiko batzuk behar ditugu, hala nola, elkartasuna, aukera berdintasuna, gizarteko kideon arteko konfiantza eta erantzukizuna. Baliteke, identitate komunitarioa edo komunitate izaera sustatzea izan daitekeela bidea. Bakoitzarentzako naturala eta berea den errealitatearekiko inplikazioa eta erantzukizuna irudikatzen du. Komunitate izaera honetan, harreman sareak sortzen dira eta horrela, konfiantza arauak, trinkotasuna eta hartu emanezko loturak

11. BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, L. (2013) . Aulki bat Tonuccirentzat, geurean eta geuretik. In Tonucci, F. *Haurren Hiria*. Arrasate. Txatxilipurdi.

ASKOREN ARTEAN (2006)*Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum*. Donostia: Argitaratzaileak: Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko Ikastolen Elkarte, Kristau Eskolak, Sortzen Ikasbatuaz.

BILBATUA,M.; ARTETXE,A.; USABIAGA,A. Ikaskide, formazio eredu sistemiko baten esperientzia eskola testuinguruan Ikastaria. Argitaratu gabe

BOLIVAR, A. (2012). *Mejorar los procesos y los resultados educativos: lo que nos enseña la investigación*. Oporto: Universidade católica Portuguesa.

BOLIVAR, A. (2012). Las comunidades profesionales de aprendizaje. Una estrategia de mejora para una nueva concepción de escuela. *REICE vol. 9, nº 1*

BOLIVAR, A (2013). La lógica del compromiso del profesorado y la responsabilidad de la escuela. Una nueva mirada.

Revista Iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en Educación. 11. 2zk

<http://www.rinace.net/reice/numeros/arts/vol11num2/art3.pdf>

COMISION DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (2005) : *Propuesta de recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente*.2005/0221 (COD). Bruxelles

COMISION EUROPEA (2002): *The key competences in a knowledge-bases economy: a first step towards selection, definition and description*. Directorate-General for Education and Culture.

DAY, C. (2005). *Formar docentes. Cómo, cuándo y en qué condiciones aprende el profesorado*. Madrid: Narcea

DAY,C.(2006) *Pasión por enseñar. La identidad profesional del docente y sus valores*. Madrid. Narcea editores.

DELORS, J. (1999): *Hezkuntza: Altxor ezkutua*. XXI. Menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena. Gasteiz: Unesco Etxea. Eusko



Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia. [*La educación encierra un tesoro*. París UNESCO 1996]

DOMINGO, J (2003) . El asesoramiento a centros educativos, una cuestión de saber, poder e identidad. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 7 (1 y 2),97-105

<http://www.ugr.es/~recfpro/rev71COL1.pdf>. Consultado [15/05/2005]

ESCUADERO MUÑOZ. J.M. (2013) Asuntos clave y pendientes para mejorar la educación

ESTEVE,O.; ALSINA, A. (2010). Hacia el desarrollo de la competencia profesional del profesorado in Esteve,O.;Melief,K. eta Alsina, A (Ed). *Creando mi profesión. Una propuesta para el desarrollo profesional del profesorado* (7-18 orr.) Barcelona:Octaedro.

EUSKO JAURLARITZA (2007) EAEn Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma sortu eta ezartzen duena.

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

EUSKO JAURLARITZA (2009) EAEn Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma sortu eta ezartzen duena.

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

FREIRE, P. (1985). *Pedagogía del oprimido*. Madrid: Siglo XXI

FULLAN, M. (2002a). *Las fuerzas del cambio. Explorando las profundidades de la reforma educativa*. Madrid: Akal [Change forces. The depths of educational reform. 1993. Londres: The Falmer Press].

FULLAN, M. (2002b). *Los nuevos significados del cambio en educación*. Barcelona: Octaedro [The New meaning of education change. New York . Londres: Teacher College Press Cassell].

HARGREAVES, A eta SHIRLEY,D.(2012). *La cuarta vía. El prometedor futuro del cambio educativo*. Barcelona. Octaedro

HOPKINS, D. (2002): Successful school improvement strategies for schools facing extremely challenging circumstances. *15° International Congress for School Effectiveness and Improvement*. Copenhagen, 3-7/01/02. The Centre for Teacher and school Development, the University of Nottingham. <http://www.ncsl.org.uk/mediastore/image2/ppnt/icsei-01-02-sfxce.ppt>.

KORTHAGEN, F,A,J, (2001). *Linking Practice and Theory. The Pedagogy of Realistic Teacher Education*. Londres: Lawrence Erlbaum Associates

KORTHAGEN, F. (2010). La práctica, la teoría y la persona en la formación del profesorado *Revista Interuniversitaria de Formación de Profesorado* (24,2), 83-111
<http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=2741919800>

MACDONALD, E.eta SHIRLEY,D. (2009.) *The mindful teacher*. New York: Teacher College Press.

MARTINEZ, A. (2011). *Los Servicios de Apoyo como oportunidad para la innovación en el Sistema Educativo. Una propuesta de mejora basada en el análisis del funcionamiento de los Berritzegunes de la CAV 2002-2011*. Tesis Doctoral.

MCKINSEY&COMPANY (2007) *Cómo hicieron los sistemas educativos con mejor desempeño del mundo para alcanzar su objetivo*.

MONEREO, C. (2009). *Pisa como excusa. Repensar la evaluación para cambiar la enseñanza*. Barcelona. Graó.

MONEREO,C. (2010). La formación del profesorado: una pauta para el análisis e intervención a través de incidentes críticos. *Revista Iberoamericana de Educación* 52(149-178 orri)

MORIN,E.(2009). *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Barcelona. Paidós [V.O.: *Les sept savoirs nécessaires à l'éducation du futur*. París. Seuil, 2000]

OCDE (2002). *Proyecto DeSeCo: Definiciones et sélection des competences. Fondements théoriques eta conceptuels*. Document de strategie. DEELSA/ED/CERI/CD(2002)9.

OCDE (2005). *Definition and selection of Key Competences: Executive Summary*.

ORCASITAS, J.R. (2005) "Educación para la ciudadanía y compromiso social", en *OGE*, 60, 5, 22-25.

ORTEGA ESTEBAN,J. (1990). " La idea de ciudad educadora a través de la histori". *La Ciudad Educadora/ La Ville Éducatrice*. I. Congrès International de Ciutats Educadores. Barcelona 1990. Bartzelona: Ajuntament de Barcelona. 91-102 orr.



- PEREZ GOMEZ, A. (2007). *La naturaleza de las competencias básicas y sus implicaciones pedagógicas*. Santander. Consejería de Educación de Cantabria
- PÉREZ GÓMEZ, A. (2008): "¿Competencias o pensamiento práctico? La construcción de los significados de representación y de acción.". En: GIMENO, J. (comp.) (2008): *Educación por competencias, ¿qué hay de nuevo?*. Madrid: Morata.
- PERRENOUD, Ph. (2012). *Cuando la escuela pretende preparar para la vida. ¿Desarrollar competencias o enseñar otros saberes?* Barcelona: Graó
- PISA (2009) Programa para la Evaluación Internacional de los alumnos de la OCDE. MEC
- SWARTZ, R.T., PARKS, S. (1994): *Infusing the teaching on critical and creative thinking into content instruction*. Pacific Grove, CA: Critical Thinking Press & Software.
- SCHÖN, D.A. (1992). *La formación de profesionales reflexivos. Hacia un nuevo diseño de la enseñanza y el aprendizaje en las profesiones*. Madrid: Paidós-MEC [*Educating the reflective Practitioner*]. 1987. San Francisco. Jossey-Bass Publishers.
- TRILLA, J. (1999). "La idea de la ciudad educadora" *Temas d'educació*. 13, uztaila 1999. Barcelona. 11-51 orr.
- UNESCO (2005). *El imperativo de la calidad*. Informe de seguimiento de la Educación para Todos en el Mundo. Paris: UNESCO
- WENGER, E. (2001) *Comunidades de práctica. Aprendizaje, significado e identidad*. Paidós, Barcelona.